

**HAURREN LAGUNAK DIREN HIRIEN AITORPENA ESKURATZEKO VIII.  
DEIALDIA.**

# **PASAIKO (GIPIZKOA) HAURREN ETA NERABEEN EGOERARI BURUZKO TXOSTENA**



**Pasaian, 2018ko apirilean**

**Erreferentziako zinegotzia: Izaskun Gomez Cermeño**  
**Harremanetarako: [alkatetza@pasaia.net](mailto:alkatetza@pasaia.net)/943344034**

**Erreferentziako teknikaria: Elisabete Astiasaran de Miguel**  
**Harremanetarako: [eastiasaran@pasaia.net](mailto:eastiasaran@pasaia.net) / 943344034**



# AURKIBIDEA

ESKER ONA.....	3. orrialdea
SARRERA.....	5. orrialdea
DESKRIPZIOA.....	7. orrialdea
PASAIAKO HAUR ETA NERABEEN ERREALITATEA	
PARTAIDETZAZKO IKERKETA SOZIOLOGIKOAREN EMAITZA.....	24. orrialdea
BALORAZIORAKO ATALA.....	35. orrialdea
ONDORIOAK.....	38. orrialdea

## ESKER ONA

Pasaiaiko Udalak bene-benetan eman nahi dizkie eskerrak haurrekin jardun duten –eta jarduten jarraitzen duten– eta haurren alde egin duten –eta egiten jarraitzen duten– lagun, elkarte, hezkuntza-komunitate, udal-zerbitzu eta gizarte eragile guztiei. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Gipuzkoako Foru Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari, haiek emandako laguntzagarik, nekez garatu baitzitekeen laguntza hori gabe ESKUBIDEAN planaren jarduna. Aldi berean, eskerrak ematen dizkiogu UNICEFi deialdi honetan parte hartzeko eman digun aukeragarik, izan ere orain artean herri honek haurren alde egindako lana eta apustua modu sistematikoagoan antolatzen eraman gaitu, gure egitekoan neurriak ezarriz eta gure ahaleginaren jabe eginez. Eta nola ez, eskerrak ematen dizkiegu Pasaiaiko haur eta gazte guzti-guztiei. Eskerrik asko zuen ekarpenengatik eta zuen egunerokoengatik; esker mila gure oraina izateagarik eta egunean-egunean hobera nola egin dezakegun erakusteagarik.

Bereziki estimatzen ditugu haien konpromisoagarik jarraian aipatzen diren eragile eta lagun pasaitarrak:

Parte hartzeko azterlan soziologikoan esku hartu duten haur eta gazteak.  
Udalaren Harrerako Ongi etorri gazte! Lerroan esku hartu duten haur eta gazteak.  
Udalaren parte hartzeko organoetan esku hartu duten haur eta gazteak.  
Irrien Lagunak proiektuan esku hartu duten haurrak eta familiak.

Oroitzapen berezia eta esker ona Margari Portabalesen alde.

Eskerrik asko elkarte guztiei, udal-zerbitzuetako langileei, eta hezkuntza-komunitate eta ikastetxeei:

### **Kultura eta aisialdia:**

- ✓ Boveda Gazte Elkartea
- ✓ Ekaitza Aisialdi Taldea
- ✓ Bixi-bixi
- ✓ Itaia
- ✓ Fama Elkartea
- ✓ Txassis Elkartea
- ✓ Alkartasuna euskal dantza taldea
- ✓ Lamiak euskal dantza taldea

### **Kirolak:**

- ✓ Illunbe Arraun Elkartea
- ✓ Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkartea
- ✓ San Pedro Arraun Elkartea
- ✓ Pasaia Kayak
- ✓ Trintxer Hockey Kirol Elkartea
- ✓ Trintxerpe Atletiko kluba
- ✓ Pasaia Pilota Eskola

- ✓ Pasaia Kirol Elkartea
- ✓ Tximeleta Kirol Elkartea
- ✓ Xanju Kirol Elkartea
- ✓ Trintxerpe Kirol Elkartea

#### **Eskola kirola:**

- ✓ Karmengo Amako Eskola Kirola
- ✓ Pasaia-Lezo Lizeoko Eskola Kirola

#### **Haurrei zuzendutako Udal zerbitzuak:**

- ✓ Kale-hezitzaileen programa
- ✓ Antxoko udal liburutegia
- ✓ Donibaneko udal liburutegia
- ✓ San Pedroko udal liburutegia
- ✓ Trintxerpeko udal liburutegia
- ✓ Kuadrilategi programa
- ✓ Pasaia Musikal
- ✓ Trintxerpe-San Pedroko ludoteka
- ✓ Donibaneko ludoteka
- ✓ Antxoko ludoteka
- ✓ Donibaneko gaztelekua
- ✓ Trintxerpe-San Pedroko gaztelekua
- ✓ Antxoko gaztelekua
- ✓ Badia antzerki eskola
- ✓ HARRERA ON programa

#### **Hezkuntza komunitate eta zentroak:**

- ✓ Karmengo Ama IPI
- ✓ Pasaia Oinarrizko Lanbide Heziketako Udal Institutua
- ✓ Pasaia-Lezo Lizeoa
- ✓ Anunciata Ikastetxea

#### **Anbulatorioak eta osasun-etxeak**

- ✓ Donibaneko anbulatorioa
- ✓ Lezoko anbulatorioko Pediatriako Zerbitzua
- ✓ Trintxerpe-San Pedroko anbulatorioa
- ✓ Antxoko anbulatorioa.

## SARRERA

Pasaiako haur eta nerabeen egoeraren diagnosia osatzeko informazio kuantitatibo zein kualitatiboa bildu dugu.

Diagnosiaren atal deskriptibo eta kuantitatiboa lantzeko Pasaiako adin txikikoen egoeraren argazkia osatzen laguntzen duten informazio eta datuak jaso ditugu. Horrela, hainbat aldagai izan ditugu kontuan: geografia, historia, demografia, lan arloa, gizartea eta ekonomia, eta hizkuntza arloa, besteak beste.

Pasaiako argazkia informazio kualitatiboekin osatu dugu. Atal honetan kokatzen da, gure ustez, diagnostikoaren funtsa edo mamia. Atal kualitatiboa osatzeko 2017ko irailean Pasaiako adin txikikoen partaidetzazko ikerketa soziologikoa jarri genuen martxan. Ikerketa horren helburua izan da, besteak beste, Pasaian haurrek eta nerabeek eta haiekin lanean diharduten eragileek (Udala, udal zerbitzuak, elkarteak, hezkuntza zentroak...) adin txikikoen egoera nola ikusten duten, zer behar sumatzen dituzten eta beraien interesak zeintzuk diren biltzea. Behar, kezka eta interesguneak definituta, horiek landu, hobetu eta asetzeko ekintza-plana osatuko da ikerketaren bigarren fasean.

Ikerketa soziologikoa egiteko hainbat teknika erabili dira: eztabaida taldeak eta saio monografikoak helduekin; partaidetzazko lan saioa haur eta nerabeekin. Eskubidean planeko eragile guztiek parte-hartu dute: politikariak, udal teknikariak, hezkuntza zentroetako ordezkariak, elkarteetako ordezkariak, udal zerbitzuetako ordezkari eta hezitzaileak, eta Pasaiako haur eta nerabeak.

Horien guztien artean protagonismo nabarmena izan dute adin txikikoek. Guztira, 257 haur eta nerabek parte hartu dute partaidetzazko ikerketan

Ondorengo orrialdeetan aurkezten dugun diagnosiak, beraz, atal desberdinak ditu: Lehenik, atal deskriptiboa aurkezten da, eta ondoren, atal kualitatiboa. Bi zati horietatik jasotako informazioarekin balorazio eta ondorioen atala osatu dugu. Batetik, AMIA ariketa egin dugu eta ondoren lehentasun eta erronkak markatu ditugu. Datozen lau urteetarako adostu dugun Pasaiako haur eta nerabeen ekintza-plana balorazio eta ondorio horietatik abiatuta osatu dugu.

## DESKRIPZIOA

### PASAIARI BURUZKO DATU OROKORRAK

#### ➤ HISTORIA

Pasaiako udalerrria, historikoki, aski berriki eratua da, 1805ean, hain zuzen, baina San Pedroko eta Donibaneko hiriguneak askoz lehenagokoak dira. Bi barruti horiek badiako urek ematen dioten itxura orografiko berezira egokitu dira historian barrena. Baditugu horren froga idatziak; esaterako, Donostiaren eta Hondarribiaren fundazio-aktetan ageri diren aipamenak.

Mende batzuetan zehar, ekialdeko Donibane Hondarribiaren menpe egon zen; mendebaldeko San Pedro, berriz, Donostiaren menpe. Baina Donibanek, 1770ean, Hondarribiarekin zuen lotura eten zuen. Geroago, 1805ean, Pasaiako udalerrria sortu zen, Errege Dekretu baten bidez: lehendik aske zegoen Donibaneri Donostiaren menpe zegoen San Pedro batu zitzaion, eta badiaren inguruan zeuden hainbat lur eta eskubide bereganatu zituzten.

Ez da zaila asmatzen zer interes zeuden erabaki horien atzean: kaiaren gaineko eskumenak batzeko interesak, bertan garatzen zen jarduerak jurisdikzio bakarra izatearen nahia eta abar.

Aurrerago, XIX. mendearen erdialdetik aurrera, hainbat azpiegitura sortu eta sendotu ziren heinean (hala nola, N-1 errepidea eta trenbidea), beste barruti bat sortu zen 1890ean; Antxo, hain zuzen.

Jada XX. mendean, laugarren barrutia batu zitzaion aurreko hiru barruti horiei: Trintxerpe. Mendearen erdialdera, arrantza-sektoreak etorkinak behar izan zituen eta behar horiei erantzuteko sortu zen Trintxerpe.

Gure herriaren historian aipatzeko modukoa da, nola ez, zer eragin izan duten arrantza-eta ontzigtza-industriek, XX. mendean beste sektore batek haien lekukoa hartu zuen arte; burdingintzak, hain zuzen. Hala ere, ohiko sektore horien gainbehera nabaria izan da azken hamarkadetan eta Pasaia bere lekua berreskuratu nahian dabilen herri bihurtu da.

Arlo horiek guztiek eragin handia izan dute Pasaiaren historian, sorreran, nahiz bilakaeran, eta, horien bidez, Gipuzkoako herri ezagun eta garrantzitsu bihurtu da. Ezagunak dira barruti historikoak, eta haien edertasunak eta kaleen osaera bereziak ospe handia ematen diete.

#### ➤ PORTUA

Erromatarren garaian Arditurriko meatzeetako mea itsasoratzeko Oiartzun ibaiaren bokalean egindako jardueren zantzuak alde batera utzita, XII. eta XIII. mendeetara arte itxaron behar dugu Pasaiako portuan egindako itsas eta merkataritza-jardueren berri izateko. Gipuzkoako herriei eta, zehatzago, itsasertzean zeudenei foruak emateak lagundu egin zuen itsas jarduerak suspertzen; izan ere, merkataritza-salerosteak egiteko hainbat

onura eman zitzaizkien. Esate baterako, Pasaia badiaren, lurraldeko burdinolen ekoizpena eta Nafarroako artilea ontziratzen ziren Erdi Aroan, eta ontzietatik Europako aleak eta manufakturak ateratzen ziren. Enbatetatik eta ekaitzetatik babesteko leku segurua zen eta, gainera, itsasontziak egiteko eta armez hornitzeko nahiko azpiegitura ona zuen. Bestalde, itsasbazterreko arrantza tradizionala eta balea-harrapaketa sendotzeaz gain, arrantzategiak ezarri ziren hainbat tokitan; esaterako, Britainiar Uharteetan. Harremanak zituzten Ipar Itsasoko herriekin eta salgai-trukean aritzen ziren (Gaztelako artilea eta oihaletako edo aleak). Garai hartan, portuaren gaineko eskumena ez zen portuko itsasbazterreko ezin herrirena; izan ere, Donostiaren foruan sartua zegoen. Gerora, gainera, Donostiaren eta Hondarribiaren artean banatu zuten.

XV. mendearen hondarrean, Donostiak indartu egin zuen bere posizioa, San Pedron dorre bat eraikita; dorrean portu-zaintzailea ere jarri zuen.

XVI. mendetik aurrera, Pasaia portuaren jardura batez ere Koroarentzako ontzigitzan murgildu zen, baita Ternuan baleak eta bakailoak harrapatzeko ontzigitzan ere. XVIII. mendean, berriz, salerosketan murgildu zen koloniek, eta Pasaia portua Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren eta Filipinetako Errege Konpainiaren egoitzetako bat izan zen mende amaieran. XIX. mendean, berriz, Norteko trenbidea porturaino heldu zen, baita Irunera zihoan errepide nazionala eta tranbia ere, eta orduantxe ekin zion portuak modernizatzeari. XX. mendean, industria astunaren salerosketa nagusitu zen, eta itsas zabaleko arrantzaren urrezko aroa izan zen, joan berri zaigun mendearen azken hogeita hamar urteetan behera eta behera etorri denarena, hain zuzen.

#### ➤ **PASAI: LAU BARRUTI, HERRI BAT**

Pasaia portuaren inguruan sortutako udalerria da. Portua da, aldi berean, batzen eta zatitzen gaituena. Portuaren ertzetaraino iristen dira, Pasaiaekin batera, inguruko beste udalerririk batzuk; hala nola, Lezo, Errenteria eta Donostia. Zenbaitetan, nahasketak eragiten ditu eraketa fisiko horrek, ez baita batere ohikoa udalerririk bat, izaera juridiko-administratiboa bakarrik duen udalerria, lau barrutitan zatitua aurkitzea. Eta gainera, gure kasuan, barrutien arteko lurrik ez dute jarraipenik.




Pasaiako lau barrutiak Trintxerpe, San Pedro, Antxo eta Donibane dira:

- Donibane: Lau barrutietan zaharrena da Donibane eta badiaren ekialdean dago. Zaharrena izateaz gain, lur-azalera handiena duena ere bada, Jaizkibel mendiari esker, baita lurzoru urbanizatu gutxien duena ere, eta barruti horretan bizi da jende gutxien. AINTZINAKO HIRIGUNEA du eta badiaren ertzean zeharka-meharka egiten duen kale bakarra. Oinetxe ugari daude bertan, arrantzaleen etxeekin modu naturalean uztartuta, multzoari halako edertasun bikaina emanaz. Ekialdetik, Hondarribiarekin egiten du muga; hegoalde, berriz, Lezorekin. Lur-azalera: 920 hektarea. Bitxikeria modura: Donibaneko kirol-taldeek kolore arrosa erabili ohi dute lehiaketetan.
- San Pedro: Badiaren mendebaldean dago barruti hau, Donibaneren aurre-aurrean, eta honen antzera, AINTZINAKO HIRIGUNEA ederra du. Trintxerperekin batera, etenik gabeko hiria osatzen du eta 85 hektareako lur-azalera du, gutxi gorabehera. Barruti honetan dago arrantza-kaia, eta arrainarekin lan egiteko eta arraina izozteko egitura handiak eta modernoak ditu. San Pedroko taldeek kolore morea erabiltzen dute barrutia ordezkatzen dutenean.
- Antxo: Udalerriaren hegoaldean dagoen barruti hau XIX. mendearekin batera sortu zen, bertan hainbat azpiegitura egin zirenean; hala nola, Norteko trenbidea, Madril-Paris errepidea, topoa edota portuko merkataritza-kaia. Ekialdetik, Errenteriarekin egiten du muga, eta mendebaldetik, Donostiarekin. Iparraldean, berriz, Portuko Agintaritza dago; Pasaiako Portua kudeatzen duen erakundea, alegia. Aipatutako mugen auzia ahaztu gabe, Antxok 15 hektareako lur-azalera du, gutxi gorabehera. Barrutiko taldeek erabiltzen duten kolorea txuri-gorria izaten da, eskuarki.
- Trintxerpe: Historiari erreparatuz, San Pedroren auzoa izan da, baina bere izaera lantzen jakin duen barrutia dela esan daiteke eta, egun, bi barruti osatzen dituzte. Trintxerpe nabarmen hazi zen arrantza-industria garatu zen urteetan, eta lau barrutietatik jendetsuena bilakatu zen. Baina 70eko eta 80ko hamarkadetako arrantza-krisialdiaren ondorioz, biztanle-kopurua nabarmen murriztu zen; hala ere, Trintxerpe da, gaur egunean ere, biztanle gehien dituen barrutia. 87 hektareako lur-azalera du, mugen auzia dela-eta, aldaketak izan ditzakeen arren. Trintxerpeko taldeek txuri-urdinez janzteko ohitura dute.




## DATU DEMOGRAFIKOAK

Pasaiaiko biztanleriaren eboluzioa ikus daiteke ondoko grafikoan:



Jarraian, ikus dezagun nolakoa izan den biztanleriaren eboluzioa barrutien arabera:



Ikus daitekeenez, azken bi hamarkadatan Donibane, Trintxerpe eta San Pedroko barrutietan ez da ia aldaketarik izan biztanle kopuruari dagokionez. Antxon, berriz, biztanleria haziz joan da azken lau urteetan.

### ➤ Udalerriko 0 eta 18 urte bitarteko haurren kopurua

Pasaiaiko Udalaren Erroldaren datuen arabera, 2018ko urtarrilaren 1ean Pasaian guztira **16.346 biztanle** zeuden, eta horietatik 7.802 gizona eta 8.544 emakumezkoak. Halaber, 2681 hamazortzi urtetik beherakoak dira. Iturri berari jarraituz, **1.483 pasaitar Espainiako Nazio lurraldetik kanpo jaio ziren (753 gizona eta 730 emakumezko),**

**herritarren guztien artean %9,7 dena.** Enpleguaren Euskal Zerbitzuak -LANBIDE- bere web gunean agertzen du Pasaian **langabezia tasa** 2018ko otsailean %12,3 igo zela, probintziako portzentajetik oso gora, %9,6koa baitzen. Horrenbestez, otsail honetan lanean aritu behar zuten 1.022 lagun langabezia zeuden, zehazki, 458 gizon eta 544 emakume. Halaber, web atari horretan bertan iragarrita dago 2018ko otsailean Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSE) onuradun pasaitarrak 627 zirela (280 gizon eta 347 emakumezko), zehazki, herritar guztien %3,8. Horietatik 418 Espainiako Nazio Lurraldean jaiok dira eta 199 hortik kanpo jaiok. Izan ere, Pasaia probintziako langabezia-indizirik altuena duen herria da. Bertako gizartea askotarikoa da, eta tradizioz izan du probintziako pobrezia indizirik altuenetakoa. Horri gehitu behar zaio diru-sarrerak udalerrri bakar bezala jasotzen dituela, eta kudeaketa-gastuak, aurretik aipatu denari jarraiki, kasuan kasu, hirukoiztu edo lauukoiztu egiten direla. Halaber, kontuan izatekoa da Pasaian ez dagoela apenas industriarik, eta portuko jarduerak, estatuko eskumena izanik, ez duela udalerrian irabazirik uzten. Laburbilduz, udalerrriak kudeaketa-gastu ugari hartu behar ditu bere gain, nahiz eta ia ez duen diru-sarrerarik. Gipuzkoako Foru Aldundi eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzari esker mantentzen da.

18 urtetik beherako herritarrak, adinaren arabera sailkatuta. 2018ko urtarrilaren 1ean<sup>1</sup>

Herritarrak guztira	Otik 2 urtera	3 urtetik 5era	6 urtetik 8ra	9 urtetik 11ra	12 urtetik 13ra	14 urtetik 15era	16 urtetik 17ra	Otik 17 urtera	Gainerakoak	18 urtetik beherako en %
16.346	416	444	440	472	296	314	299	2.681	13.665	16,4%

Urteak	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15	16	17
Bi sexuak	128	132	156	133	144	167	151	149	140	164	143	165	139	157	179	135	149	150
Gizonak	60	63	78	72	77	93	73	62	71	74	64	84	74	81	94	61	84	74
Emakumeak	68	69	78	61	67	74	78	87	69	90	79	81	65	76	85	74	65	76

Pasaiko adingabeak, sexuaren arabera, 2018ko urtarrilaren 1ean.

Adingabeak, sexuaren arabera	
Gizonak	1.339
Emakumeak	1.342
Guztira	2.681

Jatorri atzerritarra duten haur eta nerabeak, sexuaren arabera, 2018ko urtarrilaren 1ean (adingabeak guztien artean %9,7koa da portzentajea).

Jatorri atzerritarra duten adingabeak, sexuaren arabera	
Gizonak	141
Emakumeak	120
Guztira	261

<sup>1</sup>Iturria: Pasaiko Udal Errolda

## JARDUERA EKONOMIKOA

Pasaiako ekonomia nagusiki merkataritza-portuaren jardueran oinarritzen da. Portuko instalazioek udalerriko gune handi bat betetzen dute.

### Pasaiako portua

Espainiako Estatuak kontrolatzen dituen 27 portuetatik Pasaiakoa portuetako trafikoen rankingean hamaseigarren postuan dago. Euskadin bi portu dira interes orokorrekoak, eta Bilbokoaren atzetik (Estatuko rankingean bosgarrena) bigarren postuan dago. Beraz, portua txikia izan arren, nahikoa garrantzizkoa da Gipuzkoako ekonomian.

Udalerriko alderik mendebalenean, Trintxerpe eta Donostiako Herrera artean industria poligonoa dago (Herrerako portuko gunea), eta bertan hainbat enpresa daude portuko jarduerarekin harremana dutenak (produktu siderurgikoen handizkariak, itsasoaren ikerketarako zentroa, itsas makineriaren konponketa, itsas arotzeria, itsas galdarategia, itsaski eta arrain izoztuaren manipulazioa, eta beste). Donibaneko moiletan ere badira ontziolak, itsasontziak konpontzen eta atoiontzien moduko ontzi txikiak eraikitzen dituztenak.

Arrantza udalerrian tradizioko jarduera bat da, gaur egun krisi luze eta sakona bizitzen ari bada ere. Eta aurrera begira, ez du ematen lehengora etorriko denik. 1960ko eta 1970eko hamarkadetan Pasaia bakailao-ontzien garrantzi handiko portua izan zen, eta alturako flotak 280 itsasontzi izan zituen eta milaka lagun enplegatu zituen. Gaur egun Pasaiako arrantzarako ontziteria zorrozki jaitsi da. Baxurako flota txiki bat ere bada. Guztira, arrantzaren jardueran udalerrian 300 bat lagun bakarrik ari dira.

Hona hemen Pasaia eta pasaitarrak gehiago ezagutzeko beste hainbat datu:

- ✓ Populazio dentsitatea: 1.566,67 herritar/km<sup>2</sup>
- ✓ Lurrazala: 1059 Ha
- ✓ Pasaiako per capita errenta: 19.913€ (Gipuzkoakoa 31.146€ da)
- ✓ Langabezia tasa: %15,7 (2016an) (Gipuzkoakoa %13,2 da)
- ✓ Atzerrian jaiotako herritarrak: 1734 herritar.

## FAMILIEN BIZI-BALDINTZAK

### ➤ *Familien gizarte- eta ekonomia-egoera, eta lan-egoera*

#### **Familien errentak:**

Estatistikako Euskal Institutuak EUSTAT jasotako datuen arabera, Pasaiako familien errenta guztira 32.155€-koa da. Gizonena 35.839€-koa da, eta emakumezkoetan jaitsiera nabarmena da: **27.931€**. Datu horiek 2015. urtekoak dira, eskura ditugun azkenak.

**Enplegua, langabezia erregistratua eta biztanleko errenta garbia.**

**BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA, SEXUA KONTUAN IZANDA (2016/1/1)**

	GUZTIRA			LANA DUEN BIZTANLERIA			BIZTANLERIA LANGABEA			BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA		
	GUZTI RA	GIZON A	EMAK UMEA	GUZTI RA	GIZON A	EMAK UMEA	GUZTI RA	GIZON A	EMAK UMEA	GUZTI RA	GIZON A	EMAK UMEA
PASAI A	16587	7988	8599	6754	3484	3270	1257	648	609	8576	3856	4720

Iturria: EUSTAT

**BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA(2016/1/1)**

	GUZTIRA	LANA DUEN BIZTANLERIA	BIZTANLERIA LANGABEA	BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA
<b>PASAIA</b>	<b>16587</b>	<b>6754</b>	<b>1257</b>	<b>8576</b>
Pasai Antxo	5242	2157	417	2668
Pasai San Pedro	3000	1286	189	1525
Pasai Donibane	2328	899	160	1269
Trintxerpe	6017	2412	491	3114

Iturria: EUSTAT

**BIZTANLERIA JARDUERAREN ARABERA AUZOAK KONTUAN IZANDA (2016/1/1)**

	GUZTIRA	LANA DUEN BIZTANLERIA	BIZTANLERIA LANGABEA	BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA
<b>PASAIA</b>	<b>16587</b>	<b>6754</b>	<b>1257</b>	<b>8576</b>
Pasai Antxo	5242	2157	417	2668
San Donibane (Alde zaharra-Landa eremua)	883	357	69	457
Donibane zabalgunea	1445	542	91	812
San Pedro Azkuene	3585	1382	308	1895
San Pedro Alde zaharra	1513	666	84	763
San Pedro Esnabide-Gran Sol	1487	620	105	762
San Pedro z. Euskadi-Arrandegia	2432	1030	183	1219

Iturria: EUSTAT

## 16 URTEK GORAKO BIZTANLE OKUPATUAK, SEKTORE EKONOMIKOAREN ARABERA

	GUZTIRA	NEKAZARITZA	INDUSTRIA	ERAIKUNTZA	ZERBITZUAK
PASAIA	6754	74	874	498	5308

Iturria: EUSTAT

Enplegua jarduera ekonomikoaren arabera.

<b>NEKAZARITZA, ABELZAINZA ETA ARRANTZA</b>	<b>%3,7</b>
<b>INDUSTRIA ETA ENERGIA</b>	<b>%21</b>
-Manufaktura industria	%1
<b>ERAIKUNTZA</b>	<b>%5,7</b>
<b>ZERBITZUAK</b>	<b>%69,6</b>
-Merkataritza, Ostalaritza eta Garraioa	%25
-Herri Administrazioa, Hezkuntza, Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak	%12,2
-Gainerako zerbitzuak	%32,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>%100</b>

2012ko datuak (EUSTAT)

## ESKOLATZE, ABSENTISMO ETA ESKOLA-PORROTAREN MAILAK

### ➤ Pasaiako hezkuntza-komunitateak

2017-2018 ikasturtean KARMENGO AMAko ikasleak guztira: 443

GELA	IKASLE KOPURUA	GUZTIRA
2 urte A	18	35
2 urte B	17	
3 urte A	18	34
3 urte B	16	
4 urte A	18	36
4 urte B	18	
5 urte A	18	38
5 urte B	20	
1. A	20	38

1. B	18	
2. A	20	40
2. B	20	
3. A	19	37
3. B	18	
4. A	20	40
4. B	20	
5. A	17	33
5. B	16	
6. A	18	35
6. B	17	
1. A (DBH)	18	37
1. B (DBH)	19	
2. A (DBH)	19	40
2. B (DBH)	21	

**2017-2018 ikasturtean KARMENGO AMAko ikasleak guztira: 1033**

MAILA	IKASLEAK (NESKAK)	IKASLEAK (MUTILAK)	GUZTIRA
1	49	52	101
2	52	52	104
3	52	40	92
4	49	42	91
5	43	54	97
6	52	40	92
Lehen Hezkuntzan guztira	298	280	578
1	43	51	94
2	45	49	94
3	38	28	66
4	35	32	67
3*	18	13	31
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan guztira	179	173	352
1	23	32	55
2	21	27	48
Batxilergoan guztira	44	59	103

**2017-2018 ikasturtean ANUNCIATAko ikasleak guztira: 363**

MAILA	IKASLEAK (NESKAK)	IKASLEAK (MUTILAK)	GUZTIRA
0 urte	5	0	5
1 urte	5	1	6
2 urte	6	5	11
Total	16	6	22
3 urte	5	7	12
4 urte	6	11	17
5 urte	12	9	21
Guztira	23	27	50
1	10	10	20
2	11	13	24
3	7	8	15
4	13	12	25
5	12	18	30
6	9	18	27
Lehen Hezkuntzan guztira	62	79	141
1	9	21	30
2	21	9	30
3	11	20	31
4	8	15	23
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan guztira	49	65	114
1	7	14	21
2	5	10	15
Batxilergoan guztira	12	24	36

**Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketako Zentroa**

Pasaiako Oinarrizko Lanbide Heziketako zentroa udalaren eskola da eta doakoa da, lanbidea ikasi, eta lan arloan sartu nahi duten gazteei zuzendua, eta/edo zuzenean Lanbide Heziketako Erdi Mailako Gradua egiteko prestakuntza akademikoarekin jarraitu nahi duten gazteei begirakoa.

Zentroko instalazioak oso modernoak dira, eta irakasle taldeak eskarmentu handia du nerabeekin. Gazteen ezaugarriak honako hauek dira: DBHko graduaturik gabeko 15 eta 17 urte bitarteko gazteak.

Eskolaren eskaintza. Espezialitateak:

- Iturgintza, berokuntza. Etxebizitzen mantentze-lanak
- Sukaldaritza

ESPEZIALITATEAK	IKASLEAK
Iturgintza, berokuntza. Etxebizitzen mantentze-lanak	25
Sukaldaritza	31
GUZTIRA	56

➤ **Absentismoa**

Ikastetxeek hileroko helarazten dituzte gizarte zerbitzuetara eskola-absentismoaren parteak, eta kasuaren arabera, jarraipena eta balorazioa egiten da. Gutxi gorabehera %4ko eskola-absentismoa dago.

➤ **Hezkuntzari eta prestakuntzari buruz eskuragarri dagoen beste informazio mota bat**

Eskubidean Plangintzaren aurkezpenean jasotakoari jarraiki, ikastetxeekin koordinaziorako gune bat dugu, eta bertan aurretik aipatutakoez gain, Donostiako La Anunciata ikastetxe itunduak ere parte hartzen du, Pasaiako ikasle ugari baitaude bertan.

## OSASUN EGOERA, DESGAITASUNAK ETA GAIXOTASUNEN PREBALENTZIA

➤ **Osasun baliabideak**

Barruti guztietan daude oinarrizko osasun-zentroak eta guztietan dira lehen mailako artatzeetarako sendagileak eta pediatriako zerbitzuak.

ZERBITZUAK	EGITARAUAK
Medikuntza Orokorra: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Pediatria, erizaindegia</li> <li>• Emagina</li> <li>• Odontologia</li> <li>• Ginekologia</li> </ul> Bezeroen arretarako arloa	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Eskola osasuna</li> <li>• Haurren hortzak zaintzeko programa</li> <li>• Ama izateko prestaketa</li> <li>• Amagandiko edoskitze-taldea</li> <li>• Erretzeari uzteko ikastaroa</li> </ul>

Haurrentzako psikiatria zerbitzua behar dutenek Donostiako EPI zentrorara bideratzen dira.



## **TRATU TXARREKO ETA ABANDONUKO EGOERAK, ETA GIZARTE ZAURGARRITASUNERAKO BESTE FAKTORE BATZUK**

Gizarte Zerbitzuetako Sailak bulego nagusia Trintxerpen du, baina deszentralizazio politikari jarraituz, Pasaiako herritar guztiak lau barrutietan artatzen ditu.

Informazio hori jardueren memorian programetan banakatuta dago.

Gizarte zerbitzuetako artatze, baloratze eta esku-hartze programan 2017an 88 familietako 157 adingabeko artatu dira guztira.

Aurreko ataletan jasotakoaren arabera, haurren eta familien pobrezia mailak Gipuzkoako lurraldekoak baino handiagoak dira. Herritarren gizarte eta ekonomia arloa gorabehera handikoa da eta gizarte-bazterkeria egoerak garrantzizkoak dira.

## **HAURRENTZAKO ETA NERABEENTZAKO LURRALDEKO KULTURA, KIROL ETA AISIALDI BALIABIDEAK**

Pasaiako udalerraren banaketa konplexua dela-eta, eragozpen nabarmen bat bada, baliabideak laukoiztu egin behar baitira, herritar guztiek eskura izan ditzaten. Izan ere aurretik aipatutakoari jarraiki, udalerraren gizarte eta demografia banaketaren ondorioz, herria lau barrutitan banatuta dago, eta bakoitzak berezko identitatea du.

### **➤ Kultura baliabideak**

Liburutegiez gain, udalerrian hainbat kultura-ekitaldi ditugu haur eta nerabeentzat, esate baterako, udaleko musika-eskola eta antzerki-eskola. Udalerriko elkarteak aktiboak dira, eta haurren eta nerabeen eskubideen alde tinko ari direnez lanean, udalerriko kultura-eskaintza handia da. Hori horrela, lau dantza-talde daude, barruti bakoitzean bat, eta adingabeko pasaitar ugari ari dira talde horietan parte hartzen.

Instalazioei dagokienez, liburutegiez gain, lau kultura gune edo kultura-etxe daude, eta horietan erabilera askotarako gelak eta eszenatokiak daude. Gune horiek erabiltzeko eskaerak ugariak dira eta eguneroko erabilera ia %100ekoa da. Udal-liburutegien bitartez, herritarren artean irakurketa eta informazio-trukea bultzatu nahi da. Horretarako, hainbat jarduera antolatzen dira, jardueren memorian aipatu direnak.

## ➤ Kirol eta aisialdi baliabideak

Pasaian udalerriko barrutietan banatuta, kirol erabilerako gunek hauek daude:

### **ESKOLA KIROLA**

Halaber, Pasaiaiko haurrek eta nerabeek kirola egin dezaten programa batean ari gara esku hartzen. Eskola garaian egiten den eskola kirola oinarritzakoa da “kirol kultura” egokia garatzeko, eta horrez gainera, oso lagungarria da “garapen integrala” delakoan. Euskal Kirolaren Legean (14/98 Legea), eta baita geroagoko arauetan ere (160/90 eta 337/94 dekretuak), eskola kirolaren alorreko konkurrentzia mailak zehazten dira. Urteko programetan laguntzea eta programa horiek udalaren eragin eremuan aurrera eramatea dira arau horietan udal administrazioari agintzen zaizkion eginkizunak.

Eskola kirolaren helburu nagusietako bat ahalik eta ikasle gehienengana iristea da. Baina bide bakarretik irits daiteke helburu horretara, alegia ikastetxeetan egitura sendoak sortuz eta prozesu honetan parte hartzen duten erakunde guztiak inplikatuz (ikastetxeak, IGEak, Udal Administrazioa, Federazioak, Klubak). Horretarako, eskola kirolaren eskualde batzordeak sortzen dira (Gipuzkoan 5 eskualde). Eskualde horiek, bestalde, ordezkariak dituzte eskola kirolaren lurralde kontseiluetan. Inplikatzeko moduetako bat udal-ikastetxe eta klub-ikastetxe arteko hitzarmenak egitea da. Ikastetxeei jardueren kudeaketa teknikoan laguntzea da klub-ikastetxe hitzarmen horien helburua, eta baita klubei oinarri sendoa eraikitzea ere, haurrek eskola aldia amaitzen dutenerako.

Eskola kirola ekimenaren helburu nagusiak honako hauek dira:

#### **1. Kirola egiten duen pertsona kopurua gehitzea:**

- Mutikoen eta neskatuen parte-hartzea orekatzea.
- Gabeziak dituzten ikasleei erraztasunak ematea kirola egin dezaten.
- Ikaslerik trebeenentzat eta ahulenentzat programa bereziak garatzea.

#### **2. Dauden kirolak garatzea eta berriei bidea irekitzea.**

- Ikastetxeek eskaintzen dituzten kirolen artean bertako eta inguruko kirolak sartzea.
- Hastapeneko eta parte hartzeko kirol gehiago eskaintzea.
- Kirol bat baino gehiago egiteko sustapen-lana egitea.

#### **3. Kalitatea hobetzea**

- Informazioa webgunearen bidez eskuratzeko erraztasunak izatea.
- Ikastetxeen kirol proiektua prestatu eta aurrera eramatea.
- Sentsibilizazio kanpainak.
- Teknikifikatzeko, eztabaidak egiteko eta bateratze-lanetarako ikastaroak; entrenatzaileentzako ikastaro orokorrak.

4. Udaleko kirol instalazioak nahiz ikastetxeetakoak optimizatzea.

5. Udaleko kirol eskolen esparrua modu onean garatzen dela ziurtatzea.

## AISIALDIA

### ✓ LUDOTEKAK

4-12 urte bitarteko A, B eta D erduetako haurrentzat

**Antxoko udal-ludoteka:** Udal-ludoteka gizarte eta heziketa ekipamendua da. Udal-ludoteka jolaserako eta harremanak izateko lekua da haurrentzat. Era berean, euskara aberasteko lekua ere bada. Jolas-jarduera asko antolatzen ditu: jolas librea, mahai-jokoak, lantegiak, txotxongiloak, liburutegia, txangoak, liburu eta jostailuen mailegu zerbitzua, etab.

**Donibaneko udal-ludoteka:** Udal-ludoteka gizarte eta heziketa ekipamendua da. Udal-ludotekak jolaserako eta harremanak izateko lekua dira haurrentzat. Era berean, euskara aberasteko lekua ere bada. Jolas-jarduera asko antolatzen ditu: jolas librea, mahai-jokoak, lantegiak, txotxongiloak, liburutegia, txangoak, liburu eta jostailuen mailegu zerbitzua, etab.

**Trintxerpe-San Pedroko udal-ludoteka:** Udal-ludoteka gizarte eta heziketa ekipamendua da. Udal-ludotekak jolaserako eta harremanak izateko lekua dira haurrentzat. Era berean, euskara aberasteko lekua ere bada. Jolas-jarduera asko antolatzen ditu: jolas librea, mahai-jokoak, lantegiak, txotxongiloak, liburutegia, txangoak, liburu eta jostailuen mailegu zerbitzua, etab...

### ✓ GAZTELEKUAK

13 eta 17 urte bitartekoentzat.

Donibaneko Gaztelekua eta Trintxerpe-San Pedroko Gaztelekua: Udal-gaztelekuak hezkuntza eta gizarterako ekipamenduak dira. Gaztelekua jolaserako lekua da gazteentzat, beren burujabetza eta gizarteratzea bultzatzeko. Gazteen parte hartze aktiboa ere bultzatzen da. Gaztelekuan hainbat jarduera egiten dira: mahai- eta estrategia-jokoak, lantegiak, futbolina, play-stationa, filmak, musika, komikiak, aldizkariak, txangoak, kirol-ekintzak...

### **GOXATU. sexualitate eta genero informazioa eta aholkularitza zerbitzua nerabe eta gazteentzat**

Pasaiako Udaleko Gazteria Departamentuak eta Berdintasun Arloak elkarlanean abian jarri duten zerbitzu honen helburu nagusia da Pasaiako haur eta nerabeen sexu alorreko osasuna hobetzea, nahiz eta sexu eta genero guztietako pertsonak artatu daitezkeen. Ekimen honen bidez, prebentzioa landu eta indarkeria matxistari aurre egin nahi zaio, azkenaldian era kezkagarrian ugaltzen ari delako, baita gaztetxoaren artean ere.

Familien eta ikastetxeen bidez informazio eta prestakuntza ugari jasotzen duten arren, nerabe eta gazte batzuek ez dute haien adinerako informazio eta prestakuntza egokia, Interneten bilatzen dute, eta haien lagunen bidez ere bai, baina batzuetan ez dute aurkitzen, edo ez dute informazio egokia aurkitzen.

Batzuetan zalantzak edo arazoak izaten dituzte, edo informazioa edo orientazioa behar izaten dute, eta ez dakite nora joan, haien intimitatea eta pribatutasuna gorde nahi dutelako. Hain zuzen ere, behar horri erantzun nahi dio zerbitzu honek.

Horretarako, anonimotasuna eta konfidentzialtasuna ziurtatzen dira zerbitzu honetan. Gainera, bertako langileak sexualitatean eta gazterian adituak dira.

Zerbitzuaren kudeaketa bi erataraz egiten da: Aurrez aurre, konfidentzialtasun osoz, astearte eta asteazkenetan 17:30etik 19:30era, hamabost egunetik behin barruti bakoitzean. Antxon Gizarte Zerbitzuen bulegoan (Gelasio Aranburu, 8), eta laster batean Antxoko Udal Gazteleku berrian, obrak amaitu eta irekitzen denean. Trintxerpe-San Pedron Udal Gaztelekuan (Gran Sol, 11, behea). Donibanen, halaber, Udal Gaztelekuan (JJ Otaegi Plaza, 3, behea).

Nahi izanez gero, edozein kontsulta egin liteke Instagrameko "Lahia-Nahia" kontuan, edo posta elektronikoko helbide honetan [sexuaholkularitza@pasaia.net](mailto:sexuaholkularitza@pasaia.net).

Kontsultak banaka, bikoteka edo taldeka egin daitezke, nahi den bezala; eta lehen esan dugun moduan, bertaratzen direnen anonimotasuna gordetzen da; era berean zerbitzua konfidentziala, berehalakoa, eskuragarria eta doakoa da.

Zerbitzua euskaraz ematen da eta, nahi izanez gero, gazteleraz. Hainbat esku-hartze maila ditu: informazioa, aholkularitza, detekzioa, beste zerbitzu batzuetara bideratzea (osasun zentroetara edo gizarte zerbitzuetara), eta laguntzea, beharrezkoa izanez gero.

Zerbitzu berri hau Pasaiaiko Udaleko Gazteria Departamentuaren eta Berdintasun Arloaren arteko lankidetzaren ondorioz sortu da, eta horretarako Lahia Nahia Sexologia Elkartearen zerbitzu profesional aditua kontratatu da.

## ✓ UDALEKUAK

Udalekuen bitartez, hurrek udan gozatzeko aukera izango dute, eta bide batez, ikastetxeetan urtean zehar bereganaturiko euskara erabiltzeko gune egokia izango dute. Pasaian erroldatua dauden edo Pasaiaiko ikastetxetan ikasten duten haurrentzat dira. Gehienez ere 10-12 haur izango dira talde bakoitzean, eta taldeko begirale bana izango dute. Jarduera ezberdin asko egingo dituzte: jolasak, kirola, tailerrak, Pasaiaiko kultura eta ingurunea ezagutzeko irteerak, mozerroak, txotxongiloak, dantzak, antzerkia, ipuinak...

## ASOZIAZIONISMOA, ETA HAURREKIN ETA NERABEEKIN HARREMANA DUTEN EKIMENAK


Pasaian haur eta nerabeekin lanean diharduten elkarte ugari daude. Elkarteen eskaintzari Udalak adingabekoentzat eskaintzen dituen zerbitzuak gehitu behar zaizkio. Halaber, 8 eta 12 urte bitartekoei eskola kirola eskaintzen zaie.

<b>Elkartek</b>	
<i>Aisialdi eta Kultura</i>	<i>Kirola</i>
<ul style="list-style-type: none"> <li>.- Boveda Gazte Elkartea</li> <li>.- Ekaitza Aisialdi Taldea</li> <li>.- Bixi bixi</li> <li>.- Itaia</li> <li>.- Fama Elkartea</li> <li>.- Txassis Elkartea</li> <li>.- Alkartasuna euskal dantza taldea</li> <li>.- Lamiak euskal dantza taldea</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>.- Illunbe Arraun Elkartea</li> <li>.- Pasai Donibane Koxtape Arraun Elkartea</li> <li>.- San Pedro Arraun Elkartea</li> <li>.- Pasaia Kayak</li> <li>.- Trintxer Hockey Kirol Elkartea</li> <li>.- Trintxerpe Atletiko kluba</li> <li>.- Club Deportivo Trintxerpe</li> <li>.- Pasaia Pilot Eskola</li> <li>.- Pasaia Kirol Elkartea</li> <li>.- Tximeleta Kirol Elkartea</li> <li>.- Xanju Kirol Elkartea</li> <li>.- Trintxerpe Kirol Elkartea</li> </ul>
<b>Udal Zerbitzuen Gunea</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>.- Kale-hezitzaileen egitasmoa</li> <li>.- Antxoko Udal liburutegia</li> <li>.- Donibaneko Udal liburutegia</li> <li>.- San Pedroko Udal liburutegia</li> <li>.- Trintxerpeko Udal liburutegia</li> <li>.- Kuadrilategi egitasmoa</li> <li>.- Pasaia Musikal</li> <li>.- Trintxerpe-San Pedroko Udal Ludoteka</li> <li>.- Donibaneko Udal Ludoteka</li> <li>.- Antxoko Udal Ludoteka</li> <li>.- Donibaneko Udal Gaztelekua</li> <li>.- Trintxerpe-San Pedroko Udal Gaztelekua</li> <li>.- Antxoko Udal Gaztelekua</li> <li>.- Badia antzerki eskola</li> <li>.- Harrera On egitasmoa</li> </ul>	
<b>Ikastetxeak</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>.- Karmengo Ama IPI</li> <li>.- Oinarrizko Lanbide Heziketarako Udal Institutua</li> <li>.- Pasaia-Lezo Lizeoa</li> <li>.- La Anunciata ikastetxea</li> </ul>	
<b>Eskola kirola</b>	
<ul style="list-style-type: none"> <li>.- Karmengo Amako Eskola Kirola</li> <li>.- Pasaia-Lezo Lizeoko Eskola Kirola</li> </ul>	

## EUSKARA


Euskarak garrantzia ukaezina du Pasaian, euskara bertako hizkuntza ofiziala baita gaztelaniarekin batera. Hizkuntzek haur eta nerabeen bizitzak aberasteaz gain, aukerak eta ateak irekitzen dizkiete hainbat alorretan: jende gehiagorekin harremanak izateko, euskal kulturaz gozatzeko, etorkizunean lan aukera gehiago izateko... Beheko taulako datuek adierazten duten moduan, azken hamarkadetan euskararen egoerak hobera egin du Pasaian, hein handi batean, belaunaldi berriek euskara jasotzeko aukera handiagoak dituztelako gaur egun: ikastetxeetan, kalean, hedabideetan... Horrek euskarazko hizkuntza-gaitasuna hobetzea ekarri du eta baita euskararen erabilera ere.

### **Hizkuntza gaitasunaren bilakaera orokorra ehunekoetan**




Iturria: Eustat

### **Gaitasunaren bilakaera 2 eta 14 urte arteko haurren artean ehunekoetan**




Iturria: Eustat

### Gaitasunaren bilakaera 15 eta 24 urte arteko gazteen artean ehunekoetan



Iturria: Eustat

### Euskararen kale erabilera Pasaian 2015. urtean %-tan



Iturria: Soziolinguistika Klusterra

Hala ere, haur eta nerabe askok ikastetxean bakarrik jasotzen dute euskara, familia eta ingurunea erdaldunak baitituzte. Horren ondorioz, euskara erabilera-hizkuntza izan beharrean, hizkuntza akademikoa da. Logikoaenez, erabilerarik ezak haur eta nerabeen hizkuntza-gaitasunean zuzeneko eragina du. Horregatik da hain garrantzitsua euskara egoera eta bizipen positiboekin ez ezik, gustuko jarduerekin ere lotzea.

Horrenbestez, haur eta nerabeen aisialdi eskaintza euskaraz eskaintzea ezinbestekoa da. Haien hizkuntza-eskubideak bermatzeko modua da. Pasaiaiko Udalak eta udalerriko ikastetxeek dagoeneko eskola-orduz kanpoko jarduera guztiak euskaraz eskaintzen dituzte, baina haur eta nerabeekin jarduten duten herriko elkarte batzuek kultur eta kirol jarduera batzuk oraindik erdaraz eskaintzen dituzte. Pasaiaiko elkarteek haur eta nerabeekin egiten dituzten jarduera guztiak euskaraz eskaintzea da beraz gure erronka nagusienetako bat.

## PASAIKO HAUR ETA NERABEEN ERREALITATEA PARTAIDETZAZKO IKERKETA SOZIOLOGIKOAREN EMAITZA

Pasaiako haur eta nerabeen egoeraren diagnosis osatzeko hainbat subjektuekin ibili gara lanean. Eragileak elkartu eta saioak eginez, hainbat gai landu ditugu. Gogoeta orokorren atal hau osatzeko gaiak azpi-ataletan multzokatu ditugu. Multzokatze horren helburua ideiak antolatzea izan da. Dena den, multzokatzea ez da modu zurrunean ulertu behar, agerikoak baita azpiataletan lantzen diren gaien arteko harremana.

Gogoeta aurkezteko orduan lehentasuna eman diegu haur eta nerabeen ahotsei, eta segidan haiekin lanean dihardutenen hitzak batu ditugu.

Haur eta gazteen inguruko diagnosis egitean garrantzitsua iruditzen zaigu haien beharrak identifikatzea, eta horrekin batera, zer testuingurutan bizi diren aztertu eta egunerokoa izan ditzaketen kezkak azaltzea. Hartara, bi errealitateatik abiatuta, beste ikuspegi bat lantzeko aukera izango da. Interesgarria iruditu zaigu helduak haur eta gazteen tokian jartzea, eta azken horien beharrak zeintzuk diren aztertzea, haur edo gazteen begirada eta ulertzeko modua agerian jartzen dela. Izan ere, askotan, haurrak eta gazteak ulertzen ditugula uste badugu ere, haien tokian jartzeko ezgaitasun handia dugu, errealitatearen irakurketa bakarra egiten baitugu, gureaz gain, beste hainbat egon daitezkeela kontuan izan gabe.

Eta hori izan da, hain zuzen ere, saioetan landu eta egiaztatu ahal izan duguna. Harritzekoa da **helduek haur eta gazteen ikuspuntua lantzeko zer zailtasun duten**. Haur eta gazteek izan ditzaketen beharrak identifikatzeko orduan helduen usteak eta interpretazioak atera dira etengabe, betiere, helduen ikuspegitik aztertuta baleude bezala. Gutxi batzuek bakarrik lortu dute haur eta gazteen errealitatea eta mundua haien ikuspegia kontuan izanda hausnartzea.

Bestalde, aipatzekoa da haur eta gazteei zaila egiten zaiela zehatz-mehatz zein behar dituzten identifikatzea, beharraren kontzeptua ez dutelako guk identifikatzen dugun modura identifikatzen, eta ez dutelako ulertzen eta ez dakitelako zeri egiten zaion erreferentzia. Horrenbestez, beharrak adierazteko ariketa egitean **lehen hezkuntzako lehen mailakoek**, batez ere, 6, 7 eta 8 urteko haurrek, gustuko dituzten eta dibertigarriak diren aipamenak egiten dituzte, eta beraien argudioa 2 elementu horietan oinarritzen da (gustukoa izatea eta dibertigarria izatea).

**9 eta 11 urtetik aurrerakoek, aldiz**, hau da, lehen hezkuntzako bigarren ziklokoak ez dira gustuko dituzten jardueraz bakarrik aritzen, izan ere inguruan dauden beharrak identifikatzeko gaitasuna erakusten dute, askotan etxean ikusi edo entzuten dutenaren isla izan daitekeena. Adin horretan askotan errepikatu da **drogak edo alkohola desagertzearen nahia**, edota lapurretak ez egotearena. Aipagarria da drogen inguruan hitz egiten dutenean asko dakitela gaiaz. Askok (bereziki 8 urtetik aurrerakoek) tabakoa eta alkohola droga bezala identifikatzen dituzte, eta askoren iritziz, debekatu egin beharko lirateke.



**Herrian eta etxeetan bizi duten egoera ekonomikoaren inguruko kezka** ere azaleratu dute lan-saioetan. Haien eskaeren artean agertu dira langabezia gutxitzearena eta oinarritzko baliabideen (ura, elektrizitatea, etab.) kostua gutxitzearena. Esaterako, Lizeoko saio batean LH 4ko ikasle talde batek herrian garatzeko proposamenak lantzean hau adierazi zuen.

*“Guk emakumeok gehiago kobratu nahi dugu, gizonak eta emakumeak eskubide berberak izateko; eta herrian pobrerik ez izatea ere nahi dugu” (Lizeoa LH4)*

Bestalde, ikusi dugu garrantzi handia ematen dietela **naturarekin erlazionaturiko ekintzei**. Itsasoa garbi mantentzearen nahia edo zelai berdeak izatearen beharra ere askotan azpimarratu dute, eta horiek mantentzen edo garbitzen lagunduko luketela adierazi digute..

*“Lorategi handiak dituzten parkeak nahi ditugu” (Karmengo Ama LH 5)*

Azken finean, haien ustetan, kalean lagunekin jolasteko edo familiarekin egoteko espazioak beharrezkoak direla konturatu gara,.

**Udal teknikari, zerbitzuetako langile zein irakasleei** dagokienez, haur eta nerabeen beharrei buruzko gogoeta egin dutenean, bereziki azpimarratu dute lantzekoak direla **emozioak adierazteko gaitasuna izatea eta espazioak izatea**. Oro har, haur eta nerabeen kolektiboan emozioak adierazteko ezgaitasun handia dagoela uste dute:

*“Ez dakite emozioak adierazten, barrera bat egiten dute” (Hezkuntza gunea, hausnarketa saioa)*

Aipatzen dute haur eta nerabeak ez ditugula hezi emozioak kudeatzeko eta adierazteko. Egungo gizartean beti pozik edo ondo egon behar dugun irudia erakutsi behar dugu eta hori helduengan ere gertatzen da. Beraz, helduengandik hasita, emozioak kudeatzen eta adierazten laguntzeko baliabideak eskaini behar dizkiegu. Eta garapenerako fokua denboran jarri dute. Haurrei denbora eta eskusibotasuna eskainiz gero, azkenean haiengana irits liteke.

Adinak gora egin ahala ere **espazio propioak izatearen beharra** maiz agertu da. Gogoeta horrekin bat egin dute udal teknikariek, hezkuntza guneko ordezkariak eta nerabeekin zuzenean lanean diharduten gainerako profesionalek. 11 eta 12 urtetik aurrerakoek helduengandik gehiago urruntzen hasten dira eta **beraien independentzia esparruak eraikitze behar** handia dute.

Espazio propio eta independenteak izateko nahia aldatuz doa gaztetxoak nerabezaroan aurrera doazen heinean. Hasiera batean, zenbait udal baliabide erabiltzen hasten dira (gaztelekuak, Kuadrilategik etab.), betiere, kudeaketa malgua izanda. Gerora, 16 eta 17 urtetik aurrera, espazio konpartitu publiko horiek lokal pribatu izatera iristen dira.

Bestalde, **udal teknikari, udal zerbitzuetako langile eta hezi gunetakoek** diotenaren arabera, 13 eta 14 urtetik gorakoek **gainerako onarpena izan beharra** erakusten dute. Hitzez hain garbi adierazten ez badute ere, haien zirkulu sozialagatik “onartua izan beharra” dute, batez ere, DBH-1etik batxilergoko urte bitarte horretan. Adin horretatik aurrera, lehen esan bezala, helduen eta batez ere, gurasoen ingurutik urruntzen dira eta lagunak dira beraien egunerokoan ardatz.

“Onarpenaren” ideia honi dagokionez, ez dugu ahaztu behar egun onarpena adierazteko espazio berriak dauzkagula. Sare sozialetako “jarraitzaile” edo “atsegite” kopuruak izan dira sarri gaztetxoan artean onarpen hori “neurtzeko” erabiltzen diren adierazleak. Haien moduko arteko onarpena bilatzen dute, ez hainbeste helduena.

*Sare sozialetako “atsegiteek” garrantzi handia hartu dutelako susmoa daukat, horiek jaisten badira, orduan zer? Nola kudeatuko dut “frustrazio” hori? (Hezkuntza gunea, hausnarketa saioa)*

Haur zein nerabeek oso **denbora libre gutxi** dutela ikusi ahal izan dugu. Gehienek, eskola bukatu ondoren, ekintza ugari dituzte: akademia, ingelesa, dantza, etab. Eta ez dute denbora librerik. Gurasoek lana eta familia uztartzeko dituzten arazoan ondorioa izan liteke denbora librerik ez izatearen arrazoa, izan ere lan-orduak direla-eta, askotan zailtasunak dituzte eskolako ordutegiarekin bat egiteko.

Urteak betetzen doazela, gazteek aukera gehiago dituzte eskolaz kanpoko ekintzak proposatzeko edo erabakitzeko. Hala ere, orokorrean lehen hezkuntzatik egiten dituzten jarduerak izaten dira, eta nahiz eta 12 urtetik aurrera, gutxi gorabeherako erabakitze ahalmena duten, askotan inbertitzen duten denbora eta esfortzua, eta haiek duten exijentzia maila oso altua izaten da. Parte hartzen duten ekintza gehienetan egin beharrekoa oso arautua dago, oso ikuspegi akademizista dute eta autonomia eta irudimena bezalako beste hainbat gaitasun garatzeko aukerarik ez dute izaten.

Egoera hori kontuan izanik, **jolas librearen beharra** dagoela sumatu da, izan ere, oso txikitatik hasten dira eskolaz kanpoko hainbat ekintza egiten, eta, jolasteko, egonean egoteko, aspertzeko eta haur eta nerabeen garapenerako oso garrantzitsua da espazio libreak izatea. Egun aldiro-aldiro zerbait egin behar den ideia nagusituta dago, eta etengabe ari gara trebatzen, etorkizunean ahalik eta emaitzarik onenak izan ditzagun. Bide hori jorratu nahian, haur eta nerabeen garapenerako eta subjektu politiko izateko beharrezkoak diren beste hainbat ezaugarri baztertzen ditugu. Inguruarekiko inplikazioa bilatu behar dugu, trebakuntza indibidualetik kolektiborako saltoa emanez.

## **HERRIAREN PERTZEPZIOA**

Haur eta nerabeekin egin ditugun saioetan bakoitzak herriaz zer pertzepzio duen jaso ahal izan dugu. Horrekin batera, Pasaian zer egoera bizi duten aztertu eta zer gabezia dituzten identifikatu ahal izan dugu. Pasaiaiko haur eta nerabeen errealitatea aztertze beharrezkoa da Pasaiaiko egitura geografikoa kontuan hartzea eta horrek zer eragin duen aztertzea. Izan ere, Pasaia herri bakarra bada ere, lau barrutik osatzen dute.

**Lehen hezkuntzako lehenengo mailatan 6 eta 9 urte** bitartekoentzat euren bizitokia herria da, alegia, haien etxeek, eskolek, parkeek eta jolas tokiek betetzen duten espazioa da bizitokia. Pasaiaaren egiturari dagokionez, adin tarte horretan eguneroko bizimodua non egiten duten, espazio horren jabe bakarrik dira, eta hortik urrutia goko espazioa ez dute herriarena balitz bezala hartzen. Beraz, nork bere barrutia bakarrik irudikatzen du.

Oso egoera desberdina ikusten dugu **LHko bigarren zikloan edo DBHko gazteengan**. Nahiz eta ulertu Pasaia herri bakar bat dela, barrukitako ikuspuntua dute eta hausnarketak egitean eredu hori mantentzen dute, eta gainerako barrutietako errealitatea ez dutela ezagutzen eta ez zaiela interesatzen argudiatzen dute.

Konturatu gara haur eta nerabeen nortasuna eta berdinen arteko harremanak beste batzuekin batera eraikitzeko Pasaiaren egitura gako garrantzitsua dela. Izan ere ez da barrutien arteko lotura eraikitzea lortzen, eta horrekin batera, ezta guztien arteko herri izaera eraikitzea ere. Askotan haien arteko lehiakortasuna handia izaten da, eta norgehiagoka hori nabaria izaten da udalak barruti batean eta ez bestean inbertsioren bat egiten duenean.

Orokorrean gazteek oso ikuspuntu txarra dute beraien herriaz. Ez dituzte alderdi positibo asko identifikatzen. Dena dela, barrutiaren arabera, errealitate ezberdinak ikusi ditugu.

**Donibanen**, adibidez, haur eta gazteentzako aukera gutxi dagoela adierazi dute, ez dagoela girorik diote. Ez daude gustura eta ez dute beraien herriaz ilusioz hitz egiten. Toki esanguratsuak dira gehienentzat Gaztetxea, Gazte-lekua, La virgen, Kalaburtza hondartza, Lizeoa eta Jaizkibel, baina aldi berean, denda eskasia eta garraio maiztasuna urria dela adierazi dute. Horren aurrean, adinak asko eragiten du, izan ere, 13 eta 16 urte bitartekoek, besteek ez bezala, beste herri batzuetara joateko aukera dutela ikusi dugu. Gainerakoak herrian geratzen dira.

**Trintxerpen** kantxa, pista eta barrutiko denden aipamena egin dute. Hala ere, 10 urtetik gorako haurrek toki edo espazio estali baten behar handia dagoela aipatu dute, batez ere neguan edo euria egiten duenean bertan egon ahal izateko. Bestalde, asko aipatu dute 12 urtetik gorako gazteentzako ez dela parkerik existitzen, izan ere orain arte egoten zirenetan aldaketak egin dituzte, eta adin muga bat ezarri dute. Hori horrela, ezin dira lehengo parkeetan egon. Horren aurrean frustrazio handia erakutsi dute, ez dituztela kontuan hartzen pentsatzen baitute. Egia esateko, horrelako aldaketa baten aurrean beraien iritzia eskatzea eskertuko lukete, batez ere, beraientzako beste aukerarik eskaintzen ez denean. Espazio ezaren ondorioz, asko eta asko Donostiara edo beste herri batzuetara joaten dira. Azpimarratu behar dugu Trintxerpen Ekaitza gazte taldeak zer lan egiten du, eragin handia baitu haur zein nerabeengan. Behin eta berriro atera da Ekaitzaren egitekoa haiek egiten dituzten ekintzen artean, eta oso garrantzizkotzat jo dute.

**Antxon** askotan errepikatu da segurtasun falta handia dagoela, eta udalak ezer gutxi egiten duen sentazioa dute. Segurtasun faltaren arrazoietakoa bat "ijito eta moroen" (haiek dioten bezala) presentziak eragiten duela uste dute. Komentario arrazistak geroz eta nabarmenagoak dira gazteen artean, batez ere, DBHtik aurrerakoan artean, Donibanen eta Antxon bereziki. Gainera, kolektibo horren estereotipoak erabiltzen dituzte inongo autokritikarik egin gabe. Haien aurrean neurri zorrotzagoak beharko lirakeela diote, eta kanporatu egin beharko lirakeela eta poliziaren presentzia handitu egin beharko litzatekeela aipatu dute. Horrekin batera, herria nahiko zikina dagoela iruditzen zaie. Ideia hori orokorra izan da adin tarte guztietan. Halaber, etxeen fatxaden itxura kaxkarra dela azpimarratu da.

Hala ere, Antxoko haur eta gazteek, San Juanen edo Trintxerpen gertatzen ez den bezala, beraien herriarekiko lotura handia dute, harrotasun handiarekin hitz egiten dute barrutiaz. Besteak beste, eliza, frontoia, anbulatorioa, Gaztetxea, Skate parka, Kanpa, Eroski, Alameda eta DIA identifikatu dituzte puntu esanguratsu gisa. Era berean, aurrera begirako ekintzak ere planteatu dituzte. Alde batetik, diotenaren arabera, herrian puntu ilun asko daude eta horiek argizatzea gustatuko litzaielike; bestetik, adin fase guztietan behin eta berriro aipatu dute Luzuriaga eraikina, alegia, 9 eta 10 urtetik gorako hainbat

saiotan azpimarratu den ideia izan da. Zehazki, Luzuriaga herriaren mesederako eta beharretarako egokitzekeo ideia azaldu dute. Horretaz gainera, 16 eta 17 urtekoek emakumeen futbol talde baten garrantzia azpimarratu dute. Izan ere Pasaia mailan ez dago futboleko emakume talderik, eta ondorioz beste herri batzuetara joaten dira. Halaber, aukera berdintasuna bermatu beharko litzatekeela uste dute.

Horren harira, aipatu beharra dago aisialdi espazioak direla-eta, Pasaian ez dagoela neska eta mutilentzako eskaintza bera. Kirol talde askotan ez dago emakume talderik. Hori eskaerarik ez dagoelako gertatzen dela diote, baina aztertu ahal izan dugunez, egoera horri aurre egiteko eta emakume taldeak sustatzeko benetako inbertsiorik ez da egiten. Orokorrean, Pasaia sexuen arabera eskaintza nahiko mugatua dela ikusi dugu, futbolaren eta arraunaren esparruetan, batez ere.

Ikus daitekeen bezala, barruti bakoitzean egoera ezberdina da. Eragiteko modua bakoitzaren errealitatera egokituta egon beharko luke, eta maila lokaleko beharrak aztertu eta horiek nola ase pentsatu beharko litzateke, tokiko planteamenduak garatuz. Bakoitzaren ezaugarrien arabera da eragina; adibidez, adierazgarriak dira Trintxerpe eta Donibaneko gazteek, batez ere 12 urtetik gorakoek, beste herri batzuetara joateko duten joera eta herri izaera eraikitzekeo agertzen duten zailtasuna.

Adinean gora doazenei herriak ez die egoteko espaziorik eskaintzen, eta haientzako ekintzak urriagoak izateaz gain, ez dira oso haien gustukoak. Urteak betetzen doazenek iritzi negatiboak agertzen dituzte. Horregatik, gazte ugari joaten dira aisialdi bila Errenteriarra edota inguruko herrietara. Gure ustean, gazteek gehiago inplikatu beharko lukete, izan ere argi dute zer egin nahi duten. Haien beharrei erantzutekeo espazioak behar dituzte.

## AUTONOMIA

Haur eta nerabeek autonomia izan nahi dute; libre sentitu nahi dute; eta askatasuna izan nahi dute. Haien erabakiak hartzeko gaitasuna izan dezaten iritzi propioak garatu behar dituzte eta gainerakoekin partekatu behar dituzte. Alabaina, horiek kontuan izanda hazten al ditugu gazteak? Pertsona autonomo izatekeo hezten al ditugu?

Autonomia terminoa edo libre sentitzearen esanahia adinaren arabera ezberdin bizitzen da. **6 eta 10 urte bitarteko haurrek**, esaterako, ez dute autonomia hitzaren esanahia ulertzen. Libre izatea ondo pasatzearekin lotzen dute, eta hori oso argi ikusten da, izan ere gustatzen zaizkien ekintzak egitearekin lotuta dago, eta horrekin baino gehiago "norekin" egiten dituzten ekintza horiek, kasu askotan familiarekin eta beste askotan lagunekin.

Nerabezaroan hasten dira gustuko ekintzak garatzen eta benetan praktikan jartzen. Egiaztatu dugu 10 urtetik gorako nerabeek hainbat esparrutan erabakiak hartzen dituztela. Izan ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, gurasoengandik aldentzen dira eta beraien denbora lagunekin pasatzen dute.

Orokorrean libreen lagunekin daudenean edo bakarrik daudenean sentitzen dira, helduen presentziarik gabe daudenean. Saioteko gazte batek honela dio:

*“Lagunekin edo bakarrik nagonean sentitzen naiz libreen, haiekin jolasean nabilenean eta denbora pasatzen dudanean nahi dudana egiteko askatasuna dudalako eta lagunek ez nautelako epaitzen” ( Lizeoa DBH)*

Baieztapen horrekin ikus liteke libre izatearen sentimendua epaitua ez izatearekin lotzen dutela. Norberaren egoeraren arabera, etxean bakarrik (beraien gelan) daudenean sentitzen dute askatasunik handiena. Lagunekin benetan nahi dutena egin dezaketela diote. Beraiekin jolasean ari direnean eta denbora elkarrekin pasatzen dutenean gainerako kontuez ahaztu egiten dira eta libre sentitzen dira, haiek esandakoaren arabera.

Etxean geratzearen ideia horrek eztabaida eta zalantza ugari sortu ditu, bereziki, helduen artean. Kezka agertu dute etxean bakarrik dauden horiek horrela erabaki dutelako ote den edo lagunik ez dutelako. Aldi berean, galdetu dute etxean egon nahi izate horrek gazteei jendearekin harremanetarako ezgaitasuna ez ote dakarkien.

Halaber, bakarrik egon nahia azpimarratu behar dugu. Askotan errepikatu den iritzi bat da, egoera horretan ere libre eta nahi dutena egiteko aukera dutelako. Betiere, zentzuz, izan ere ez dute uste libre izateak dena egiteko aukera ematen dienik:

*“Libre izatea ez da beti egin nahi duzun guztia egitea” (Karmengo Ama DBH2)*

*“Nahi duzuna egin, baina zentzuz, hainbat gauza ezin direla egin ulertu eta gero.” (Lizeoa DBH)*

Orokorrean ikusi dugu nerabeek hainbat esparrutan autonomia gehiago nahi dutela. Eskolan, esaterako, uste dute ez direla autonomoak, ez baitute ezer aukeratzeko. Halaber, patioan lagunekin pasatzen duten denboran izan ezik, haiek ez dutela ekarpenik egiteko espaziorik adierazi dute. Egia esateko, zein irakaslerekin dauden kontuan izanda, egoera aldatu egiten da, nahiz eta hori nahiko subjektiboa den.

Familiaren esparruan ere egoera antzekoa da. Nerabeek azaldu digutenaren arabera, oso errealitate ezberdinak ikusten dira. Batek zuzenean gurasoen ideia lantzean, honako hau adierazi du:

*“Haurrak ezin dira askeak izan, gurasoak dituztelako” (Anuntziata DBH)*

Hala ere, hori ez da gailendu den iritzia. Aitzitik, gurasoek nerabeekin agertzen duten kontrol handiaren aipamena egiten dute. Askoren iritziak, gurasoek etengabe jakin nahi dute non dauden, zertan dabilzan eta norekin. Kontrol puntu bat izatea ez dute negatibotzat hartzen. Gurasoek beraiantzat hoberena nahi dutela ikusten dute, baina batzuetan zerbait gertatuko zaien beldurrez, gehiegi babesten dituztela diote.

Gizartean finkaturik dagoen beldurraren kultura familiek ere pairatzen dute. Hori horrela, haurtzaroan eta nerabezaroan dagoen kontrola areagotu egiten da, eta ondorioz umeek inguruarekiko autonomia garatzeko dituzten aukerak murriztu egiten dira (kalean bakarrik egotea, toki ezberdinetan mugitzea...). Aldi berean, horrek ondorio zuzenak ditu haur eta nerabeek kalean pasatzen duten denboran, eta harreman sozialak eraikitzeke dituzten aukeren artean. Harreman askeak izateko aukera murrizta dutenez, haurtzaroan sozializatzeko zailtasunak dituzte, eta beste pertsona batzuekin harremana izateko gaitasun gutxi ager lezakete.

Beraz, aske, libre sentitzea eta autonomia izatea ez da espazio edo gune baten kontua bakarrik. Aitzitik, asko baldintzatzen du esparru horretan izaten diren subjektuen (irakasleak, gurasoak ...) izaerak eta jarrerak.

## PARTE-HARTZEA

Haur eta nerabeak subjektu politiko izatea nahi dugu, eta haiek herrian duten inplikazio maila handitzea. Horrezaz gain, espazioetan agertzen duten iritzia entzutea, eta horri guztiari balioa ematea. Horretarako, herriko esparruetan beraien parte-hartzea sustatu behar dugu. Ezer baino lehen, ezinbestekoa da parte-hartzearen kontzeptua nola ulertzen duten jakitea, eta egun Pasaian zein espazio dauden ikustea, denon artean, logika beretik abiatuta, bidea eraikitzen hasteko.

**Udal teknikari, zerbitzuetako langile eta heziguneetako** kideekin haur eta nerabeen parte-hartzearen gaiaz aritzean, honako ideia hau nabarmendu da behin eta berriro:

*“Haur eta nerabeen parte-hartzearen bila ari gara, baina non geratzen da helduena, gurea?” (Udal zerbitzuetako langileen hausnarketa saioa)*

Haur eta nerabeekin lanean hasi aurretik jada identifikatu dugu arazoa oinarrian dagoela. Pertsona heldu askorentzat parte-hartzea bozka ematean bukatzen da eta ez gabilitza horren bila. Parte-hartzea hori baino gehiago delako kontzientziazio-lana egin behar dugu, baina ez bakarrik haur eta nerabeekin, helduek duten jarreran eragitea ere ezinbestekoa baita.

Alderdi horretan oraindik ere lan handia dago egiteko. Hainbat espaziotan haur eta nerabeen parte-hartzearen inguruan eztabaidatu izan dugunean, parte-hartze eremuak zeintzuk izan beharko luketen adierazteko mugak ezarri dira. Batetik, argi agertu da haur eta nerabeei eragiten dieten espazioetan eragin behar dela, betiere, helduek halakotzat identifikatzen dituzten espazioetan. Hori agertu ondoren, lehen mugak eraikitzen hasiak gara, eta beste hainbat elementu eta ezaugarri jaso eta landu gabe utzi ditugu, eta ezinbestean, haur eta nerabeen parte hartze erreala gauzatzeko ahalmenik gabe gelditu gara.

Guk haur eta nerabeen parte-hartzea sustatu nahi dugu, baina oinarritik lan egiten hasi behar dugu, izan ere haur eta nerabeek ez dakite parte-hartzea zer den, parte-hartzeak zer esan nahi duen edo parte-hartzearekin zer ulertzen dugun, ez baitaude horrela hezita. Zertan parte hartzen duten galdetu ondoren, zer ekintza gauzatzen dituzten aipatu dute. Ez dute parte-hartzea herri mailan izan dezaketen inplikazioarekin lotzen. Askorentzat, parte hartzea bozka ematea besterik ez da, eta ez dakite herri mailan zer egin dezaketen eta nola joka dezaketen.

Ulertu behar dugu parte-hartze modu asko daudela, eta haur zein nerabeekin egin ditugun saioak aztertuta, adin bakoitzaren arabera eta ateratako ondorioak kontuan izanik, parte-hartzea desberdina izango dela.

**6 eta 8 urte bitarteko** haurrekin ari garela, konturatu gara eraiki beharreko parte-hartze espazioak imajinariotik abiatu behar direla. Irudimenarena da beraien tresnarik eraginkorrena eta horretan eragin behar dugu. Zer garatu nahi duten identifikatzea zaila

egiten bazaie ere, eskainitako espazioetan irudimena lantzeko aukera emanaz, beraien errealitatea ezagutzeko aukera izan dugu, zein errealitatetan bizi diren, haiengana hurbilduz.

Esan bezala, haur txikitxoekin hausnarketa eta analisi kritikoa lantzeko baldintzak jarri behar dira. Ez dugu pentsatu behar haurrek gaitasunik ez dutenik. Gaitasunak garatzeko baldintzak eskaini behar zaizkie, haien errealitatearekin bat datozen baldintzak, eta haien emozioetatik eta irudimenetik landuak direnak. Lanketa horiek egiteko espazioak eraiki behar dira, subjektu politiko izateko tresnak jaso ditzaten.

Orokorrean, saioetan oso jarrera positiboa ikusi dugu haur eta nerabeei parte-hartze espazioak irekiko genizkiela esatean. Elkarrekin kezka, interesak eta iritzia konpartitzea oso aberasgarria iruditu zaie, eta gehiengoak eskertu duen gauza bat da. 9 urteko batek hau adierazi zuen:

*“Gu Pasaian bizi gara eta guk hartu behar dugu ardura zer gauza dauden eta zer ez jakiteko” (Lizeoa LH 4)*

Era berean, esan beharra dago haiekin eskolako eremuan izan garela eta gure saioak beraien egunerokoetatik ateratzen direla, beraz, imajinatzen dugu erakutsi ziguten prestutasuna ohikoa baino handiagoa izango zela. Hala ere, ardura badagoela ikusi dugu, gainera, oso gaztetatik. Gauzak planteatzeko ahalmen handia dago, esaterako, Anuntziata ikastetxeko LH 4 eta 5 adinekoek beraien proposamenak gauzatzeko hainbat bide planteatu zituzten, besteak beste; *alkateari deitu eta kontatu liokete gauzak aldatzeko, udalera eramango lituzkete kexak eta proposamenak, herria garbitzen lagunduko lukete, sinadurak jasoko lituzkete. Ondoren, ordezkari talde bat alkatearekin hitz egitera joango litzateke...* Horrelako ideiak garatu dituzte.

Horiek horrela, argi dago inizatiba, gogoia eta ideiak badirela; baina **12 urtetik gorako gazteek** ez dute uste herrian parte hartzeko espaziorik dagoenik. Adin horretatik aurrera salbuespen gehiago nabaritzen da gazteen hitzetan. Gauzak egiteko eta proposatzeko orduan udalaren aldetik ezer gutxi espero dute. Hala ere, barrutiaren arabera, egoera ezberdina da herriko ekintzetako eta erabaki-ahalmenetako parte-hartzeari dagokionez. San Pedron espazio gehiago dira. Gainera, Nahikari dute udaleko erreferente eta berarekin harreman handia dute. Batzuetan bilerak egiten dituzte, nahiz eta maiztasun zehatzik ez izan. Gainerako barrutietan, aldiz, ez da hori gertatzen, eta ez dago horrelako espaziorik.

Orokorrean ondorioztatzen da egun ez dagoela gazteen parte-hartzea sustatzeko espaziorik, eta espazioak izatea garrantzizkotzat jotzen dutela. Izan ere, haien iritzia kontuan hartzen ez delako sententzia dute. Herrian beraientzat antolatzen diren ekimenetan eta ekintzetan, eta horien diseinuan parte-hartzea positiboa eta beharrezkoa dela diote.

Hala ere, parte-hartze politikorako kultura eta gaitasun falta handia dago. Hori agertu dute udal zerbitzuetako langileek. Ondoren, guk gaia beste saio batzuetan ere aztertu ahal izan dugu. Parte-hartze eta inplikazio kolektibo kulturaren gabezia dago. Hori egungo gizartean eraikitzen ari garen kultura indibidualistaren isla da. Harrigarria izan da hasiera batean zein zaila egin zaien herriarentzat onuragarria izan zitekeen zerbait pentsatzea. Baina rol ariketa baten bitartez eta alkatearen papera hartuz, berehala imajinariotik

landuz, ideia pila bat atera dituzte. Asko kostatzen zaie gauza fisikotik harago hausnarketa egitea. Gauza positibo eta negatiboak identifikatzean, gehienetan tokiak identifikatzen dituzte.

## HARREMANA HELDUEKIN

Helduekiko duten harremanaren inguruan hitz egitean, haur eta nerabeen errealitatea ezberdina izan arren (familia harremanei dagokienez, irakasleekin duten hartu-emanari dagokionez, etab.), asko errepikatzen den ideia da gehiegizko babesarena, batez ere, gurasoengandik datorrena. Hein batean, kontrola positibotzat hartzen badute ere, askotan gehiegizkoa izaten delako sentsazioa dute. Uneoro agertu behar dute zer egiten ari diren.

Gazteek askotan kontraesanak ikusten dituzte helduek eskatzen dizkieten gauzen artean eta gero helduek egiten dituztenen artean. Helduek exijitzen dutena ez omen dute gero haiek betetzen. Eta horren aurrean frustrazioa erakusten dute. Helduek ez omen dituzte ulertzen; sentipen hori agertzen dute.

Diagnostikoan zehar maiz agertu da helduek haur eta nerabeengan zer eragin duten. Azkar batean esateko, **haur eta nerabeak helduon isla dira** hein handi batean. Helduok zer esaten dugun eta zer egiten dugun, haiek erreproduzitu egiten dute. Adin ezberdineko gazteen artean errepikatzen den fenomeno da. Saioetan gazteek azaldutako irizpide zein iritziak errealitatearen isla direlakoan gaude, hala ikusi dugu gurekin elkarbanatu duten iritzietan.

Helduek ez omen dituzte adingabekoen iritziak aintzat hartzen, adin txikikoen artean oso ideia orokortua eta barneratua da hori. Adin txikikoek onartuta daukate beraien iritziak aintzat hartuko direla (kasurik onenean) beraien esparrura mugatzen diren gaiei buruz ari bagara (parkeak, aisialdi eskaintza, etab.) Gazteenekin lan egitea egokitu zaigunean argi ikusi dugu beraien "interesak" edo "gustuko" dituzten elementuak identifikatzeko garaian soilik beraientzat "interesgarriak" eta "egingarriak" diren gaietara mugatu direla. Bestalde, oso interesgarria eta adierazgarria izan da baieztatzea nola eztabaida esparrua zabaltzen dugunean gazteenen galbahea guztiz desagertzen den eta guztiz espontaneoak diren burutazioak adierazten dituztenean (orokorrean kontsumora bideratutako ideiak dituzte: Aqua-Park bat, zoologiko bat, Burger Kinga, etab.). Litekeena da analisi erreal bat egiteko gaitasuna galtzea eta beraien asmoetara egokitzen den errealitate batera igarotzea. Horrela, mugarik ez duen errealitate bat eraikitzen dute (esan daiteke Olentzerori edo Hiru Erregeei eskaera gutuna idazten hasten direla).

*Politikoki zuzena ez den diskurtso bat erabiltzen dute* eta helduek erabiltzen duten hizkuntza zein terminoak erabiltzen dituzte. Baieztapen hori oso modu argian identifikatu eta egiaztatu dugu. Gazteek beraien erronka/elementu sozialak identifikatzeko garaian: emakumeak baztertzeko dituen genero sistema bat onartzen dute, xenofobo eta etnozentrikoa den testuinguru bat dute egituratua, eta oso barneratua dute komunitatearen arazo asko kolektibo zehatz batzuek (ijitoak, moroak, etab.) sortzen dituztela, eta haiei leporatzen dizkiete ezegitekoak.



## HARREMANA UDALAREKIN

Bitxia da Udalaren eta udal-zerbitzuen artean egiten duten bereizketa. Hau da, haientzat zerbitzuak eta zerbitzuetako langileak ez dira “Udalekoak”; liburutegiko langileak edo Kuadrilategiko begiraleak ez dute Udalarekin loturarik. Udala abstraktuagoa eta urrutiagoa da haientzat.

Beraz, Udala, erakunde gisa “urruti” sentitzen dute eta nahiko irakurketa “ezkorra” egiten dute. Udaletik egiten denaren inguruko gogoetari Udaletik egiten ez denarena gailentzen zaio. Adibide moduan aipatzekoa da Antxoko haur eta nerabeek Udalari aurpegiratzen diotela barrutiko segurtasun-arazoei (liskarrak, lapurretak, mehatxuak, etab.) erantzun ez izana.

Esan bezala, “urruti” sentitzen dute Udala, eta beraz, Udalarekiko komunikazioa ez da haientzat existitzen. “Ez digute entzuten”, “ez digute kasurik egiten”, hamaika aldiz entzun diren esaldiak izan dira diagnostikoaren prozesuan. Adibidez, Antxoko nerabeek kezu agertu dira Gaztetxea itxi ostean, Udalari beste espazio bat eskatu zitzaizkion eta Udalak ez duelako inolako aukerarik eman gaztetxea “ordezkatzeko”.

Azkenik, aipatu nahiko genuke haur eta nerabeek benetan eskertu dutela diagnostiko hau egiteko haiekin hitz egitera joan izana. Lan-saioen ebaluazioan horixe baloratu dute gehien, haiek esateko zutena entzutera joan izana.

## ARRAZAKERIA

Orokorrean, haur eta nerabeen artean beste **jatorri edo etnia batzuetako pertsonenganako enpatia falta** sumatu dugu. Aipatzekoa da jasotako iritzi gehienak taldean esandakoak direla eta zaila dela jakitea maila indibidualean esandakoari eutsiko ote lioketen.

Aurreko atalean aipatu dugun moduan, egindako komentario arrazista askotan (beste gai batzuetan bezala) nabaria da helduen eragina. Gurasoek esaten dutenak edo etxean esaten eta ikusten dutenak izugarritzko eragina du haiengan, izan ere ondoren, haur eta nerabeek entzun edo ikusitako hori birproduzitzen dute. Beraz, hein handi batean haien jarrera zein iritziak, arrazistak kasu honetan, helduengandik eratorriak dira. Ideia orokorra azaldu ondoren, gero ez dute hori garatzeko gaitasunik, ez eta argudiatzeko eta esandakoa defendatzeko ahalmenik ere.

Komentario edo jarrera horiek adinak gora egin ahala indar handiagoa hartzen dutelakoan gaude. 12 eta 13 urtetik gorakoetan nabaritu da gehienbat jarrera arrazista. Batez ere, herrian (bereziki Antxon) gertatzen diren istiluen aurrean hartzen dute jarrera hori, eta Pasaian bizi diren “ijito eta moro” guztiak gertatzen denaren erantzule egiten dituzte. Mespretxu handiarekin hitz egiten dute haietaz eta elkarbizitzarako aukerarik ez dute ikusten.

Oso bestelakoa da arrazakeria jasaten duten haur eta nerabeen bizipena. Diagnostikoaren prozesuan Lanbide Heziketako gazteekin egin genuen saioan (jatorri askotariko gaztetxoek kopurua handia da), errealitatea “beste ikuspuntu batetik” irakurri zuten. Haiek Pasaian jarrera arrazistak jasaten dituztela diote. Alde batetik, kaleko jendearen

komentario desatseginak pairatzen dituzte; eta bestetik, bertako poliziak duen jarrera salatu dute, honako hau argudiatuz:

*“Latinoaren itxura nuelako gelditu ninduen poliziak, eta gaizki tratatu ninduen, nik ezer egin ez banuen ere” (Lanbide Heziketa)*

Beraz, Pasaiako Udalaren Migrazio eta Aniztasun Arloak haur eta nerabeentzat arrazakeriari buruz antolatzen dituen lanketak (Ongi Etorri Gazte proiektua, esaterako) inoiz baino egokiagoak dira une honetan. Ezinbestekoa da jatorriarekin eta arrazarekin lotutako estereotipoak deuseztatzeko lanean jarraitzea, elkarrekin komunitate plurala eta kohesionatua eraikitzeko.

## GENEROA

Gizartean **generoaren arabera banaketa** ere oso presente dago haur eta nerabeengan, bai **haien bizipen eta esperientzietan eta baita jendartean kokatzeko duten moduetan ere**. Egiten dutenaren artean edo gustuko dutenaren artean, adibidez, mutilek nabarmen azpimarratu dituzte kirolak, bereziki, futbola. Nesken kasuan interesak bestelakoak dira, ikasketak, musika, etab.

Aipagarria iruditzen zaigu “aske sentitzearen” inguruan neskek eta mutilek egiten duten irakurketaren artean dagoen ezberdintasuna, bereziki 13 urtetik gorakoan artean. **Neskek** hainbat egoera edo momentutan beren **askatasunari mugak jartzen zaizkiola** sentitzen dute. Kanean, adibidez, erasoak jasaten dituztela onartu dute, piropoak, begiradak, etab. Bigarren mugatzat hartu dute zer jantzen duten. Etengabe epaitzen dituztela uste dute, bai kanean eta baita lagunartean ere (bereziki, eskolako ikaskideen artean). Jantzen duten jantziaren arabera, kanean komentarioak jasotzen dituzte, kotxeek klaxona jotzen diete edota oinez doazela komentario desatseginak jasan behar izan dituzte behin baino gehiagotan.

*“Guapa!! Praka horiek!!” (Kotxe batetik oihukatuta, DBH-2ko ikaslea)*

Espazio publikoetan libre ibiltzearekin jarraituz, neskek kezka handia adierazi dute **herrian dauden puntu beltzen inguruan** eta horiek direla-eta, neurriak hartu behar direla diote. Gauz etxera itzultzean Lezotik Donibanera doan bidean argia falta dela aipatu dute. Egoera horien ondorioz, nesken artean ziurgabetasun eta beldur sentazioak areagotzen dira.

Amaitzeko, zenbait neskek adierazi digute ez dakitela nola erantzun hainbat egoeraren aurrean. Esaterako, Antxon Zumardiko eskaileretan eserita daudela, gizon ezezagun batek beraiekin hitz egiteko eskubidea duela sentitzen badu, eta haiengana hurbiltzen bada, neska asko behartuta sentitzen dira elkarriketarekin hasteko, egoera deserosoa izan arren haientzat. Ez dakite (edo ez dute tresnarik) egoera horretatik ateratzen edo egoerari bukaera ematen. Gizon helduek duten indarrak botere harremana sortzen duela sentitzen dute. Mutilek egoera honen aurrean indarkeria erabiliko luketela diote, baina neskek ez dute ikusten defendatzeko bidea indarkeria izan daitekeenik.

## BALORAZIORAKO ATALA

Jarraian zerrendatzen dira Eskubidean plana osatzen dugun eragileok herriko haur eta nerabeen eskubideak bermatzeko helburua landu eta gauzatzeko bidean adierazitako ahulezia, indargune, mehatxu eta aukerak.

### PASAIAKO UDALERRIKO BARNEKO FAKTOREAK

AHULEZIAK	✓ INDARGUNEAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Sakabanaketa: fisikoa (lau barruti) eta eragileen artekoa (kolektiboak).</li> <li>✓ Ez dago herriaren kontzientziarik. Identitatea lau barrutitan zatikatua ageri da.</li> <li>✓ Herritar zaugarriak (gizarte eta ekonomia egoeran, oro har).</li> <li>✓ Haur eta nerabeen parte-hartzea, hizkuntza-estrategiak eta balio hezitzaileak lantzeko gabeziak dituzten langileak,</li> <li>✓ Udal zerbitzuetako hezitzaileak lanean txandaka jardutea.</li> <li>✓ Haur eta nerabeenganako begirada eskasa, ez ditugu erabat subjektu politiko ahaldundu gisa ikusten.</li> <li>✓ Parte-hartze kulturaren falta eta parte hartzeko gobernantza modu berriagoak irudikatzeko zabaltasun falta.</li> <li>✓ Haurren parte-hartzea ziurtatzeko ikastetxeen menpekotasuna izatea.</li> <li>✓ Aniztasuna lantzen duen elkarterik ez egotea eta aniztasunarekin konpromiso irmoa duen eragilerik ez izatea.</li> <li>✓ Arrazakeriaren eta xenofobiaren aztarnak.</li> <li>✓ Oraindik ere bada erronka bat adingabekoekin diharduten eragileen artean: zenbait kasutan ez dago errotuta, eta beste askotan ez dago ikusgai.</li> <li>✓ Kirol elkarteak: begirale/entrenatzaileen egoera prekarioa da zenbaitetan.</li> <li>✓ Haur/nerabeen euskara gaitasuna bermatzeko eskola-orduz kanpoko elkartearen eskaintza erabat euskaraz ez</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Auzo eta barrutietan komunitate kontzientzia.</li> <li>✓ Taldearen kontzientzia (sailarteko mahia, gizarte zerbitzuetako taldea).</li> <li>✓ Eskubidean plana eta egitura (gizarte-sarea). Lanpostu bat udal lanpostuen zerrendan planaren koordinaziorako. Aurrekontu propioa plana gauzatzeko.</li> <li>✓ Gizarte sarea: eskolak, udal zerbitzuak, elkarteak, pediatrik,... Hezitzaileak eta teknikariak elkarlanean aritzeko guneak eta eskarmentua. Elkar ezagutzen dugu. Lanerako abiapuntu ona, pertsona motibatuak eta inplikatuak. Ikuspuntu desberdinak biltzen ditu elkarlanak, aniztasuna.</li> <li>✓ Herri hezitzaileagoa eta ahaldunduagoa lortzeko haur/nerabeekin, hezitzaileekin eta gurasoekin lan egin beharra denok konpartitzen dugu.</li> <li>✓ Gizarte Ekintza Sailaren laguntza eta aholkularitza teknikoa eta gainbegiratzea.</li> <li>✓ Banakako eragileak barrutiarekin eta adingabekoekin konpromisoa dutenak.</li> <li>✓ Komunitateko liderrak: lan komunitariorako praktika positiboak daude.</li> <li>✓ Inklusio tradizionala eta identitarioa etorri berriekin eta aniztasunarekin oro har.</li> <li>✓ Aldaketetarako motibazio handia.</li> </ul>

<p>izatea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zerbitzuen balio-aniztasunik eza, Gaztematikak ezartzen duenaren arabera.</li> <li>✓ Adingabekoei eskaintzen zaien zerbitzuetako koordinazio nahikorik ez barrutien artean.</li> <li>✓ Gurasoekin lan gutxi egin izana</li> <li>✓ Komunikazio hutsuneak: haur eta nerabeekin egiten den lana bistaratzeko ezinak.</li> <li>✓ Haur/nerabeentzako eskaintza pribatua landu ez izana.</li> <li>✓ Eskola kiroleko begiraleen perfila hobetu beharra.</li> <li>✓ Emakumeen kirol praktika federatua baxua.</li> </ul>	<p>Haserrea tratua diskriminaziokoa eta injustua denean, eta hori guztia agerian jartzea. Eskubideen eta horien aldarrikapenen kontzientzia hartzea</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Baliabide ugari: Migrazio eta Aniztasun arlorako aurrekontua eta programak, harrera protokoloa, Berdintasun arloko programak, kale hezitzaileak,...</li> <li>✓ Jendea artatzeko zerbitzu deszentralizatuak eta hurbiltasuna.</li> <li>✓ Haur eta nerabeekin orain arte landutako parte-hartze esperientziak positiboak izan dira.</li> <li>✓ Adingabekoei eskaintzen zaizkien zerbitzuei buruzko balorazio ona.</li> <li>✓ Udaleko sailarteko kide diren sailen arteko koordinazio ona.</li> <li>✓ Adingabekoekin lanean diharduten udalerriko eragileen arteko harreman profesional ona (ikastetxeak, elkarteak...)</li> <li>✓ GFAko Gaztematika sistemaren partaide izatea.</li> <li>✓ Eragile estrategikoak migrazioa eta aniztasuna lantzeko.</li> <li>✓ Eskola kiroleko programa, kirol hastapenerako erreferente nagusia, kalitatezkoa eta bereziki zaindua.</li> <li>✓ Uda kanpainako kirol promozioa.</li> <li>✓ Jarduera Fisiko eta Kirolerako Aholkularitza Zerbitzua, martxan jarri berria.</li> <li>✓ Karmengo Aman DBH lerroa zabaldu izana.</li> <li>✓ Kirol hitzaren alderdi positiboari heldu izana: pertsonak / erreferenteak ardatz.</li> </ul>
--	--

## UDALERRIKO KANPOKO FAKTOREAK

MEATXUAK	AUKERAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Gizarte Zerbitzuen arloko judizializazioa.</li> <li>➤ Haur eta nerabeen inguruan zabaltzen diren berriek azterketa eta epaiketa publikoa egiten dute.</li> <li>➤ Gazteek jasotzen dituzten ereduak: balioak (errespetu falta, lehia) sare sozialak eta teknologia berriak, kontsumoak, berdinen arteko tratatu txarrak, familia barneko tratatu txarrak, ...</li> <li>➤ Haur eta nerabeen parte-hartzea lantzen duten “profesionalak” topatzea zaila da oraindik.</li> <li>➤ Lantzen ari diren esperientzia batzuk ez dute haurren “benetako” parte-hartzea lantzen, ez ditu benetako subjektu ahaldundu edota erabakimena duten subjektu gisa tratatzen.</li> <li>➤ Kanpoko esperientzia askok ez dute hizkuntza irizpidea (eskubidea) kontuan hartzen.</li> <li>➤ Gizartearen aurreiritziak, arrazakeria eta xenofobia. Beldurraren kultura indartzen.</li> <li>➤ Harrerarako eta elkarbizitzarako politikarik eza, lege-araubiderik ez.</li> <li>➤ Sedentarismoa bizimodu aktiboa eta osasuntsua zalantzan jartzen ari da.</li> <li>➤ Oinarrizko abilezietan hutsuneak nabarmentzen hasi dira. Adierazleak: bizikletan ibiltzen jakitea edo igeri egiten jakitea.</li> <li>➤ Portua, uretako jarduera batzuetan portuarekiko menpekotasun ekonomiko izugarria</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>➤ Badia berroneratzeko plana. Horrekin lotutako lan-dinamika berriak sortzea.</li> <li>➤ Unicefen aitortpena.</li> <li>➤ Aldiko apurkako kontzientzia, kolektibo hauek erakundeen zaintzaren beharrea daudelako.</li> <li>➤ Gero eta esperientzia eta praktika gehiago haur/nerabeak subjektu politiko gisa tratatzeko. Gero eta ikusgaiago dago. Gero eta kontzientzia kolektibo handiagoa eta esperientzien truke gehiago (beste eragile eta herriekin).</li> <li>➤ Teknologia berriak erabiltzeko aukera.</li> <li>➤ Gaztematikaren eragina Pasaian.</li> <li>➤ ZAS (Zurumurrueen aurkako sarea), aniztasuna lantzen duten elkarteak (Gurutze Gorria, Caritas, Sos arrazakeria, ...)</li> <li>➤ Eskualde mailako lan-mahai indartsuak: kirol arloan, euskara arloan,...</li> <li>➤ Gipuzkoako Foru Aldundiko Udalekin egitasmoa, euskara arloko hainbat ikerketa, prestakuntza eta programak lantzeko.</li> <li>➤ Balio hezitzaileen zeharkakotasuna landuta dugu, bereziki haurren parte hartzeari dagokiona, hizkuntza eskubideena, genero irizpidearena eta aniztasunarena.</li> </ul>

## ONDORIOAK

AMIAN ateratako elementu positibo eta negatibo guztiak aztertu ostean, hainbat gai lehenetsi dituzte Pasaiaiko Eskubidean Planeko eragileek:

- **ELKARLANERAKO GUNEAk INDARTU ETA HEDATZEA:** Elkarlana Eskubidean plana oinarri eta indargune garrantzitsu bezala ikusten dugu. Halaber, elkarlan horrek baditu bere ahuleziak edo hobetu beharrekoak: aliantza gehiago (eragile zein pertsona konkretuekin) bilatzeko erronka mahaigaineratu da, baita ditugun elkarlanerako guneak berraztertu, indartu eta finkatzea ere.
- **ERAGILEEN PRESTAKUNTZA:** Eragileetako partaideen prestakuntzak duen garrantziaz jakitun, trebakuntzaren eskaintza antolatu eta sistematizatzeko beharra jarri da mahai gainean.
- **ELKARTEEN AHULEZIA:** Pasaiaiko elkarteak egoera ahulean daude. Elkarteen haur eta nerabeen ongizatean duten garrantziaz jakitun, bizi duten egoera hobetzea ezinbestekoa da.
- **HAUR ETA NERABEEN PARTE-HARTZE BENETAZKOA:** Eskubidean planean haur eta nerabeak erdigunean jartzeko bideari ekin diogu, eta zentzu horretan haur eta nerabeentzako partaidetzako sistema egonkortzeko erronka dugu.

AMIAtik ateratako elementuetatik lehenetsitakoez gain, herriko eragile guztiekin batera (politikariak, teknikariak, elkarteetako ordezkariak, elkarteetako ordezkari eta hezitzaileak, udal zerbitzuetako ordezkari eta hezitzaileak, Pasaiaiko haur eta nerabeak) osatutako diagnostiko kualitatiboko ondorio eta erronka nagusiak gehitzen dira:

### 1. Parte hartzeko eta inplikazio kolektiborako kulturaren gabezia

Parte hartzeko eta inplikazio kolektiborako kulturaren gabezia dago haur zein helduengan. Hori egungo gizartean eraikitzen ari garen kultura indibidualista honen isla da. Parte-hartzea eskaerak egiteko logikaren barruan kokatzen dugu. Ez du inplikaziorik eskatzen, bakoitzak dituen behar indibidualak asetzeko helburua du. Pasaiaiko errealitatea ere egoera honen isla argia da. Horregatik martxan jarri dugun bide honetan salto kualitatibo bat eman beharra ikusten dugu, eta eskakizunak egitetik ekintzak garatzeko prozesu bat abiatu behar dugu, heldu, haur zein gazteak ahalduntze kolektibora bideratzeko

### 2. Helduekiko sentsibilizazio beharra

Gogoeta orokorrean jaso den bezala, azpimarratu nahi dugu haur eta nerabeak subjektu politiko izatera irits daitezzen Pasaiaiko beste subjektu batzuekin egiteko dagoen sentsibilizazio-lana. Pertsona heldu askorentzat parte-hartzea bozka ematean bukatzen da eta gu ez gabiltza horren bila, parte-hartzea hori baino gehiago delako kontzientziazio lana egin behar dugu, benetako inplikazioa izango bada. Haur eta nerabeen hitza

momentu puntualetan jasotzea baino une gehiagotan izatea nahi dugu guk. Herrian benetako inplikazio aktiboa duten pertsonak izango dira, eta beraien hitzari herriko espazio guztietan balioa emango zaio.

Haur eta nerabeen parte hartzeari buruz hainbat gunetan eztabaidatu izan dugunean, batzuetan parte hartze eremu horiek zeintzuk izan beharko luketen zehaztean mugak jarri dira. Batetik, haur eta nerabeei eragiten dieten espazioetan zalantzarik gabe egon beharra zutela argi zegoen, betiere, guk helduok identifikatzen ditugun espazioetan. Hori proposatuta, lehen mugak eraikitzen hasten gara eta beste hainbat elementu eta ezaugarri jaso eta landu gabe uzten ditugu, haur eta nerabeen parte-hartze errealik lortzen ez dela.

### **3. Heldu orojakilearen figurarekin apurtu beharra**

Pasaiako haur eta nerabeek (batez ere haurrek) oso barneratuta daukate helduen “lana” haiek babestea dela, are gehiago, helduengan dagoela haien iritziz “ezagutza”. Helduek dute hainbat gairen inguruko (ekonomia, politika, gizarte erronkak, etab.) ezagutza, eta horrenbestez, haiei aitortzen diete hainbat konturi buruzko iritzia emateko eta erabakitzeko eskubidea.

Beraz, helduek haur eta nerabeekiko duten nagusitasun egoeraren ondorioz, haiek ez diete baliorik ematen euren ezagutzei, esperientziei, gaitasunei eta praktikei. Horrela, haurren kasuan bereziki, heldu baten beharra sentitzen dute beraien jarduerak antolatuta eta kudeatzeko.

Nerabeak heltzen doazen heinean, zalantzan jartzen hasten dira “heldu jakintsuaren” ideia hori. Haien ahotsa garatzen duten arren, oro har, ez dute sentitzen helduen aldetik haien iritzi eta egiteko moduen aldeko errespeturik. Helduen “logikan” sartzen ez badira, haiek egin ditzaketen ekarpenei ez zaie aitortzen zilegitasunik.

### **4. Haur eta nerabeak ahaldundu beharra**

Aldi berean, helduen irudiaren deseraikitze prozesua gauzatzen den bitartean, ezinbestekoa da haur eta nerabeen ahalduntzea gertatzea. Haur eta nerabeen benetako inplikazioa lortzeko, eta subjektu politiko izatera iristeko inguruarekiko hausnarketa kritikoa egiteko gaitasuna eta ahalmena izan behar dute, eta horretarako tresna eta baliabideak eskaini behar zaizkie.

Pasaiako haur eta nerabeekin egindako saioetan nabarmen gelditu da beraientzako zein garrantzitsua den iritzi eta barne hausnarketak partekatzeko espazioak izatea. Beraien hitzari balioa eman behar zaio. Haiek dituzten kezketatik abiatuta, proposamen eta ideiak garatzeko eta herri mailako inplikazio maila zein barneko ahalduntzea garatzeko tresnak eskaini behar zaizkie.

### **5. Emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna landu beharra**

Pasaiako haur eta nerabeek argi daukate helduen artean “bi pertsona mota” daudela dagokien sexu-generoaren arabera. Emakume eta gizonen inguruan bi imajinario mota eraikitzen dituzte. Sexu-generoaren banaketak haien nortasunean (haur eta nerabeengan) duen eraginari dagokionez, adinean aurrera doazen heinean, aukera desberdintasunen inguruko irakurketa kritikoak sakonagoak dira.

## **6. Espazio digitala: arriskuak eta aukerak**

Teknologia berrien garapenak gure egunerokoan zer eragin duen kontuan hartu beharreko elementua da. Internet, sare sozial eta espazio birtualen bitartez, jendartearen harreman ereduak aldatu egin dira. Haur eta nerabeen kasuan ere agerikoa da eredu aldaketa hori (harremanak eraikitzeke orduan, onarpen soziala eskuratzean, etab.). Pasaiko haur eta nerabeekin egindako lan-saioetan argi agertu da teknologia berriak haien egunerokoan erabat txertatuta daudela, eta mundu erreal eta birtualaren artean mugitzen direla.

Teknologiaren erabilerrari dagokionez, aipatzekoa da haur eta nerabeen bizipen eta irakurketak eta haiekin dihardutenenak oso bestelakoak direla. Haur eta nerabeek ondo pasatzearekin, askatasunarekin edo harreman berriak sortzearekin lotu dituzte teknologiak. Profesionalek, aldiz, kezka jar duten gaiaren inguruan, haur eta nerabeak "isolatuko" ote diren beldur agertu dira, eta baita harreman "ez-errealak" eraikiko ote dituzten eta "deskonektatuko" ote diren beldur ere. Hainbat profesional menpekotasunaren inguruan ere mintzatu dira.

Kezka eta arrisku horiek jasotzea garrantzitsua den arren, ezin dira ahaztu teknologia digitalen indarguneak. Haur eta nerabeen partaidetzarekin lotuta, ondo landu eta erabiliz gero, aukera handiak eskaintzen dituzte.

## **7. Udalarekiko duten ikuspuntu negatiboa deseraikitzea**

Beste erronketako bat haur eta nerabeek udalarekin duten ikuspuntu negatiboa deseraikitzea da. Haur eta nerabeekin egindako saioetan beraiengandik jasotakoaren arabera, oso urruneko figura da udala. Horrekin batera, udalak bere eginkizunak ez dituela betetzen uste dute, eta halaber, herrian gehiago inplikatu beharko lukeela.

Egia da herri izaera duten lau barrutik osatzen dutela Pasaia, eta horrek asko zailtzen duela barruti bakoitzean egin behar den kudeaketa, baina haur eta nerabeek herrian duten inplikazio maila handitu nahi badugu, pertzepzio hori baztertu, eta elkarrekin hartu-emanan izan beharra dugu.

## **8. Eskolaz kanpoko jardueren inguruko gogoeta abiaraztea**

Diagnostikoan jaso denez, Pasaiko haur eta nerabeek eskolaz kanpoko ekintza ugari izaten dituzte. Ondorioz, jolas libererako eta esperimenezko denbora gutxi dute. Gainera, ekintza horiek normalean oso arautuak izaten dira, eta haur eta nerabeak "ezagutza jasotzaile" hutsak izaten dira, eta gogoeta gutxi egiteaz gain, erabakitzeke ahalmen mugatua izaten dute. Udalak antolatzen dituen aisialdiko hainbat ekintzaren formatuari dagokionez, hausnarketa bat egin beharko litzakete, espazioetan haur eta nerabeak ez daitezke erabiltzaile soilak izan. Haur eta nerabeak subjektu politiko izan daitezke espazioak berrantolatu egin beharko dira (ekintzen eta dinamiken diseinua haur eta nerabeekin batera eginez, iritzi eta ekarpenak egiteke espazioak eskainiz, erabakiak modu partekatuan hartuz, etab.)



## ETORKIZUNERAKO LAN-ILDOAK

2017ko urria eta urtarrila bitartean egindako Pasaiko haur eta nerabeen partaidetzako ikerketaren emaitzak aztertuta, 2008tik abian dugun Eskubidean Planaren lan-ildo eta erronken inguruko hausnarketa egin dugu, eta horiek egokitu eta osatu egin ditugu. Horrela, Pasaiko haur eta nerabeen ekintza-plana osatzeko oinarriak zehaztu ditugu, eta Eskubidean planaren lan-lerroak eta epe ertain eta luzerako helburuak zehaztu ditugu:

### **ESKUBIDEAN PLANA: Udalerriko haurren eta nerabeen eskubideak eta ongizatea hobetzearen aldeko helburuak, epe motzerako eta luzerako.**

- ✓ **Haurren eta nerabeen tratu onaren sustapena eta prebentzioa**
  - a. Herritarrekin tratu ona sustatzea.
  - b. Haurren eta nerabeen familiak, tutoreak edo arduradunak tratu onera biltzea.
  - c. Kolektibo honekin eta kolektibo honentzat lanean diharduten gizarte-eragileak prestatzea eta sentsibilizatzea.
  - d. Kolektibo honekin diharduten gizarte-eragileen arteko sareko lana eta lankidetzaren sustatzea.
  
- ✓ **Haurrekin eta gazteekin diharduten elkarteak indartzea.**
  - a. Kolektibo honekin lanean diharduten elkarten egitekoa sistematizatzea, zehaztea eta gainbegiratzea.
  - b. Kirolean haurren eta nerabeen parte-hartzea sustatzea.
  - c. Elkarten eskaintza ikusgai jartzea.
  - d. Aisialdian haurrek eta nerabeek parte-hartze aktiboa izan dezaten sustatze-lana egitea.
  - e. Gizarte-eragile guztien prestakuntza bultzatzea, kolektiboaren eskubide guztiak bermatze aldera: hizkuntza, identitate, genero aniztasun eta gainerako alorretakoak.
  
- ✓ **Adingabekoari harrera ona egitearen aldeko jarrera sustatzea, haien jatorria edozein izanda ere.**
  - a. Pasaia iritsi berri diren haur eta nerabeen gizarteratzea sustatzea eta erraztea.
  - b. Irtsi berrien hizkuntza-eskubideak bermatzea.
  - c. Pasaia aniztasunaren aberastasuna agerian jartzea.
  
- ✓ **Pasaiko haur eta nerabeentzako gune eta instalazioak aztertzea, egokitzea, sortzea eta hobetzea, eta identitate pasaitarra sustatzea.**
  - a. Kolektibo honentzat diren gune eta instalazioen egoera aztertzea.
  - b. Identitate pasaitarra bultzatzea.

**Zehar-lerroen** bitartez, helburu hauek lantzen dira:

- ✓ Haur eta nerabeen hizkuntza-eskubideak bermatzea.
- ✓ Haurren berdintasunaren arloko eskubideak bermatzea, eta baita ere sexu eta jaioterri (jaiotza, etnia, kultura, etab.)
- ✓ **Haur eta gazteen kolektiboaren benetako parte-hartzea sustatzea, eskubideen subjektu direnez:** kolektibo honekin diharduten gizarte-eragile guztiek bultza eta berma dezaten adingabekoek euren jardueretan eta programazioetan parte hartzea.